



Elena Zabaleta
Nafarroako
Ikastolen Elkarteko
lehendakaria / 8

Doneztebe Futbol
Taldearen Eguna
ospatuko dute
ekainaren 15ean / 19



Sarako Leire Fagoaga
Euskal Herria
Zuzenean festibalaz
solasean / 49

SINADURAK

MONIKA
AGIRRE
CASCALLANA / 3

AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

ESTEPE
APEZETXE
MURUA / 4

IZASKUN
ZUBIALDE
GRAJIRENA / 4

ttipi txartela

Joseane Sorando Oñazola
72873152-A
2021/04
372

ZOZKETA / 60

BEINTZA-LABAIENGO ESKOLA ITXIKO DUTE

Bi urtez, bueltaka ibili ondotik, ekaina akitzearekin batera itxiko ditu ateak Beintza-Labaiengo eskolak, gurasoek seme-alabak Doneztebeko eskolan matrikulatzea erabaki dutelako. / 10



MIREN IRURZUN

Memoriaren sarea iruten

Bortzirietako Emakumearen Memoriaren Baratzaren urteurrena ospatzeko prestaketak. / 12



Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIEsek **Nafarroa Garaiko
mendialdean**

hartu due
111 udalerrien
eremuan ere



22.000
irakurle


Diario de Noticias
13.000 irakurle

Diario de Navarra
9.000 irakurle


Bertze batzuk
6.000 irakurle

Gara
4.000 irakurle
Berria
3.000 irakurle

IKASKETA MAILAREN ARABERA



ADINAREN ARABERA



♀ %59,2 EMAKUMEAK
♂ %40,8 GIZONAK

Datu iturria: CIES, 2019ko metatuak



NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Altxorraren bila

Temati ari zen Robot, zakurra, usnaka eta usnaka harrizko pareta bateko zuloan. Hori ikusita, harengana hurbildu zen Marcel, lagun kaninoa zerk aztoratu zuen jakiteko asmoz. Han egonen ote zen herrian bolo-bolo zebilen altxorra? Badaezpada, zuloa ahal modura ireki eta begiratzera sartu zen.

Istorio horixe kontatzen dute Lascaux II leize-erreplikako bisita gidatuetan, halaxe aurkitu baitzituen Marcel Ravidat gazteak duela 20.000 urteko labar-pinturak. 1940ko udan izan zen hori, Okzitaniako Montignac herrian, eta, egun, munduko ondareztat ditu UNESCOk margolan haiek.

Orain dela guti faksimilea ikusteko parada izan nuen, eta, egia erran, bertako irudiek adina txunditu ninduen aurkikuntzaren pasadizoak. Izan ere, diru, urre, bitxi edo halakoak datozkigu gogora altxorretan pentsatzen dugularik, baina horma zahar haietako pintura xumeek hutsaren hurrengo bihurtzen dute edozein eltze-urre preziatu.

«EDOZEIN ELTZE-
URRE HUTSAREN
HURRENGO UZTEN
DUTE PINTUREK»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ongietorri lagun, Pjila'si Mi'kmaq

XVI. mendetik dokumentatua dago euskal arrantzaleen eta mi'kmaq Amerika iparraldeko indigenen arteko harremana. Arrantzaleek *Zer moduz?* galdetzerakoan *Apaizac obeto* erantzuten omen zuten Ternua eta Kanada inguruko lagun (mi'kmaq) haiek. Harreman haiez solastatzeko dator Baztanera Keptin Stephen Augustine buruzagia. Pjila'si.

NABARMENTZEKOAK



JOXE MARI
ZELAIETA
IRURITA



NURIA
MUTUBERRIA
DONEZTEBE

Iruritako bestetako lehen suziria botaz, Joxe Mari Zelaiaeta *Xaldubi* izan zen eskualdeko besta zirimolari hasiera eman ziena. Zortzi orduren buruan hasi ziren bestak Urdazubin.

Nuria Mutuberria doneztebarrak, Elgorriagako Bainuetxeko zerbitzarien nagusiak, *Enpresak hobetzen dituzten pertsonak* aitortza jaso du Nafarroako Enpresarien Elkartearen eskutik.

ATZERA BEGIRA



2009-06-11 · TTIPI-TTAPA · 496 zk.

Goizuetako Umore Ona peñak 50 urte

Pedro Mari Aizkorbe Goizuetako semea zenarekin hasi zen dena. Iruñean bizi izan zen urte batzuek eta sanferminetako peña bateko kidea izan zen. Goizuetara itzuli zenean, Iruñean bezala, Goizuetan peña bat sortzea proposatu zuen. Esan eta egin. 1959an hasitako eginahalak 1960ko festetan ikusi zuen argia; orduan atera baitzen lehenbiziko aldiz Umore Ona peña kalera. Duela hamar urte, 50 urte bete zituen Goizuetako peñak eta horren harira, erreportajea egin zuen TTIPI-TTAPAK. Horren barne, Joxe Anton Elizegi peñaren sortzaileetako bat, Juan Antonio Lekuona elkarteko lehendakari ohia eta Ibon Elizegi duela hamar urte elkarteko lehendakaria zena elkarriketatu zituen TTIPI-TTAPAK.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakal
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maidor Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oleiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 38€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€



KOLABORAZIOAK

ESTEBE APEZETXE MURUA

Klika

Badira bi hilabete Korrikaren 21. edizioa akitu zenetik eta bertze behin ere Euskal Herriko errepide eta karrikak euskaraz mukuru bete genituenetik. Hizkuntza bat bultzatzeko munduan egiten den ekimenik jendetsuenean euskararen alde egotetik alde egitera pasatzeko momentua dela aldarrikatu genuen lau haizeetara. Bertze lekuetan bezala, eskualdean ere harrera beroa izan zuen lasterketak eta lerro hauek baliatu nahi ditut eskerrak emateko. Horretarako, Klika aurtengo leloaren letretan oinarrituz, Korrikaren jarduna eta helburuak lau aditzetan laburbilduko ditut.

K letraz, KONPROMETITU. Gero eta indibidualistagoak garen garai honetan, hainbat eta hainbat lagun konprometitu ziren Korrika pasatu aitzineko hilabeteetan osatu genituen batzordeetan buru-belarri lanean aritzera. Hunkigarria da bakoitzaren eginbeharrek uzten duten denbora tarte laburra Bera, Elgorriaga, Zugarramurdi eta Elizondoko bilkuretan pasatu duen jendearekin lan egitea. Izan ere, Korrika ez

«KLIKA EGITEA AUKERA BAT HARTZEA BADA, EUSKARAREN HAUTUA EGITEA IZAN DADILA»

litzateke izanzen batzordeetan egiten den lan ikaragarria gabe. Biba zuek!

L letraz, LAGUNDU. Aldarrikapenaz gain, Korrikak badu helburu ekonomikoa ere. Berari esker urtero milaka ikaslek

ikasten dute euskara Euskal Herriko AEKren euskaltegietan. Eta euskaraz doan ikasteko eskubidea gauzatzeko bidean, instituzioek behar adinako laguntzak eman ezean, hemendik aitzin ere beharrezkoa izaten segituko du. Hori dela eta, eskerrik beroenak kilometroa erosiz, Korrika Lagun edo Laguntzaile izanez, arropa jantziz edo bertze edozein modura Korrika lagundu duzuen guzoi.

I letraz, IKASI. Euskara ikasleak dira AEKren eta Korrikaren izatearen funtsa. Egunerokotasunean beren burua euskalduntzeko eta euskaraz bizitzeko egiten duten ahalegina eskertzekoa da eta aitzineko puntuan erran bezala, ahalegin hori erreala izan dadin Korrikak ezinbertzekoa izaten segitzen du.

A letraz, ARITU. Ikastea edo jakitea ez dira aski eta gure hizkuntza zaharrak bizirik segituko badu, bihotzean ez ezik, mingainean ere egon beharko du. Aurtengo mezuak zioen bezala, Klika egitea aukera bat hartzea bada, aukera hori izan dadila euskararen hautua egitea, ikastearena, inplikatzeara eta gehienbat erabiltzeara.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Sare sozialak, onuragarriak edo arriskutsuak dira?

Gaur egun erabat konektaturik bizi gara. Ordenagailu, mugikor edota tabletaren menpe bizi gara. Etxean, eskoletan, kalean... denak konektaturik gaude, eta edozer gauza dela eta konexioa galduz gero, gu ere galduta gaudela iruditzen zaigu.

Internetari esker informazioa bilatzeko aukera dugu. Baina, informazioaz gain, gaur egun sare sozialak punta-puntan daude, modan alegia. Nork ez ditu ezagutzen Whatsapp, Facebook, Twitter, Instagram, Snapchat, Youtube... denok ezagutzen ditugu! Baina, pentsatzen al dugu edozer gauza argitaratu aurretik zein ondorio ekartzen al dituen egindako argitaratzeak? Nik uste ezetz!

Ciberbullying-a, grooming-a, sexting-a, ciberkontrola... hitz berriak dira gure hiztegian, baina tamalez, hor gelditu dira, hiztegian. Ez ditugu buruan barneratu, eta oso hitz potoloak dira, arriskutsuak, ezjakintasunaren ondorio zuzena kasu askotan.

«ERANTZUKIZUNA GURASOENA DA, GUK JARRI DIEGU ESKU ARTEN ERREMINTA»

Nire gaurko hausnarketa gazteak eta sare sozialen erabilpenean oinarrituko dut. Ba al dakizue etxeko gazteek zenbat urterekin zabaltzen ahal duten, adibidez, Whatsappen kontua? Edo Facebooken?

Edo hain modan dagoen Instagramen? Aplikazio bakoitzak badauka bere adina, baina orokorrean, 14-16 urte beteak izan arte ezin dituzte aplikazio hauek deskargatu eta, bertan kontu bat zabaltzeko. Inguruan begiratu eta askoz gazteagoak mugikorrari kea atera arte aritzen dira jo eta ke aplikazio hauetan. Argazkiak igo, komentarioak egin, besteen argazkiak partekatu, bakarkako edo taldeetako mezularitzan... jarduten dute erabat. Gazte hauetako askok erabilera egokia egiten ez dakitela iruditzen zait. Norena ote da errua?

Erantzukizuna gurasoena dela iruditzen zait, izan ere, guk jarri diegu esku artean halako erreminta potentea. Baina, gurasook ba al dakigu zein diren arriskuak eta nola ekidin? Askok ez! Erabilera desegokiaren ondorio izaten dira lehen aipatutako ciberbullying-a, grooming-a edota sexting-a, besteak beste. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zait, lehendabizi, gurasoen teknologia heziketa, gure gazteei beharrezko eta oinarritzeko ideiak helarazteko. Modu honetan, segurtasun handiagoz eta zentzu handiagoz jokatzeko aukera izan dezakete.

Segurtasun gaiarekin loturiko web orri interesgarri batzuetan sartu eta informatzea gomendatzen dizuet, gero gure gazteekin partekatzeko; www.IS4K.es edo www.tudecideseninternet.es adibidez. Ea denon artean heziketa egokia lortu eta hitz berri potolo horiek hiztegitik kentzea lortzen dugun denon artean!

11 GALDERA LABUR

MARIANO IRIBARREN IRIGOIEN AMAIUR

«Bi urteko estutasuna pasatuta Rugby Taldea indartzea espero dut»

Noiz sartu zinen Baztango Rugby taldean?

18 urteak arte bizikletan ibili nintzen lehiaketetan. Ondotik, kirola eta besta uztartzeko kirol bat hartu nahian sartu nintzen BRTn (irriz).

Zer eman dizu BRTk?

Lagun aunitz, tokiak ezagutzeko aukera, elkarte batzuekin elkarlanean aritzea... Nafarroaren Egunean laguntzen aritu ginen (ostatuko txandan) baita Oinezen ere.

Oraindik orain, laguntza eskaintzen diezu...

Jokalari gisa seriozki aritzeari 2011n utzi nion. Bada errana errugbi-jokalariek ez dutela errugbia uzten... eta egia da. Ordutik partidaren bat edo bertze jokatu izan dut. Orain

Baztango Rugby Eskolako txapelketen ardura dut.

Urteotan aldaketa sumatu duzu?

Bai, kirolari kopurua murriztuz joan da. Taldea berreskuratu genuenean 20-25 lagun bildu ginen eta helburu bertsua genuenez indarrez ekingenion. Urtez urte, konpromisoa guttituz joan dela erranen nuke, salbuespenak salbuespen.

Eta maila aldetik?

Batak bertzea eragin du: entrenamendu guttiago, jende guttiago... maila ere beheiti.

Seniorren taldea kolokan dago.

Zer sentitzen duzu hori aditzean?

Kristoren pena. Aitzinerat aterako denaren esperantza du. Gibeletik aunitz heldu dira: 18 urtez azpikoak 12; 16tik beheitikoak 14; eta eskoletan



ere bada jende poliki. Bi urteotako estutasuna pasatuta taldea azkartuko dela uste dut.

Zenbaten faltan daude?

15 finko eta 5-6 konpromiso osoa eman ezin dutenak... Bertze 5 bat beharko lirakeke.

Nola animatuko zenuke jendea?

Kontaktuko kirol bortitza den arren, barneko amorruak askatzeko kirol aproposa dela erranez. Sortzen den lagun taldea ere urtetarako izan daiteke.

Zein izanen da zuen erronka?

Taldea egonkortzea, ezin dugu emaitzik eskatu. Egia erran azken urteetan hala izan da...

Zein eragin izanen luke seniorren taldea desagertzeak?

Gaztetxoan erreferentzia itzaltzea. Nahiko egoera onean gaude eta hori pena litzateke...

Gaztetxoekin aitzinera egingen duzue?

Gertatuak gertatu azpiko kategoria guztiekin gutxienez urtebete gehiago egingen dugu.

Hondartza edo erre kara joateko toallak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Lotsa sentimendu guztien gainetik jartzen delarik**BAKENE KARRIKIRI TELLETXEA**

Ez da erraza halako zerbait idaztea, gutxiago bizitzako momenturik zaile-netako batean zaudelarik familiako zutabe bat erori delako. Baina zailtasuna beharrezkin nahasten denean ez da deskantsurik hartzen egin beharrekoa egin arte. Ingurukoek ondoan zer dugun jakin dezatela, ondorio guztiekin.

Beintza-Labaien, 2019-5-24, aitaren hileta eguna. Bere azken borondatea betetzen saiatu gara baina norbaitek trabak jarri dizkigu bide horretan.

Elizan sartzean ohartu gara aitaren errautesak ez direla aldareko ohiko tokian jarri, erdian, alde batera baizik. Hori egin duenak jakinen du zein izan den arrazoia, baina aitari tratamendu bera zor zitzaion, eta familiari gutxieneko azalpen bat, errespetuagatik bada ere. Lehenengo zartakoa.

Aurretik adostua genuen elizkizunean *Xalbadorren Heriotzean* kantatuko zela, gitarrarekin, eta gure harridurarako ez zaigu horretarako aukerarik eman. Ez omen da elizan kantatzeko moduko kantua, eta guri kontsultatu gabe zentsuratu egin du norbaitek, tartean gezurra erabiliz. Gainera, elizkizunaren bukaeran komentario ironikoa egin du honekin lotuta. Aitari gustatzen zitzaion kanta ez zuen ezer zentsuratua izateko, bere omenez kantatu nahi genuen bere azken agurrean eta ez digute utzi. Bigarren zartakoa.

Elizatik ateratzean ez dugu aukerarik izan segundo bakar bat ere egoteko guri doluminak ematera hurbildu zaigun jendearekin. Eta beharrezkoa zen, guretako eta haiendako ere. Hori ere sobera eskatzea izanen zen. Hirugarren zartakoa.

Baina mingarri eta lotsagarriena izan da errautesak lurperatzerakoan ez zaigula familiako kide guztiei presente egoteko aukerarik eman, nahiz eta

behin eta berriz eskatu, faborez, itxoiteko, hildakoaren semea iristeko puntuan egonik hura iritsi arte errautesak ez lurperatzeko.

Ezinbertzekoa zen halako momentu berezi batean denak egotea, baina badirudi horretarako eskubiderik ere ez genuela. Barkatu ezineko zartakoa.

Zoritzarrez ez da halako zerbait gertatzen zaigun lehen aldia. Herriko apaizak jakin beharko luke predikatzen dena eta egiten dena bat ez datozelarik sinesgarritasuna, fundamentua eta konfiantza galtzen dituela. Lotsarekin batera mina eman digu guzti honek, aitaren galerarekin nahikoa izango ez bagenu bezala...

Baina aita indartsua izan zen azken hatsa ailegatu zitzaion arte, eta guk ere indar hori dugu, kontzientziaren lasaitasunarekin batera.

Mila esker momentu latz hauetan gurekin sentitu zaituztegun guztiei, aunitz izan baitzarete.

Ametsak**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Gure zerebroa, gau eta egun, etengabe, lanean ari da eta ondorioz, ametsak ere, gauez eta egunez izaten ditugu. Lotan ditugun gehienak fantasia handikoak izaten dira, eta errealtatetik ezer gutxi izaten dutenak. Gainera, berehala ahazten ditugu. Batzuetan, pozez ahazten ditugu zorigaitztozkoak direlako. Beste kasuetan, penetan esnatzen gara amestutako gertaera pozgarria amets hutsa izan dela jakitean.

Antzina, ametsei garrantzi handia ematen zieten. Oso ezagunak dira Bibliako Testamentu Zaharrean kontatzen diren Egiptoko Faraaien ametsak eta Josek, Jakoben semeak, interpretatu zituenak. Amestutakoak beren 'jainkoen' mezuak zirela uste zuten. Gaur egun, ametsi ez zaie horrelako garrantzirik ematen, baina bestetik, gizakiak ez gara aspertzen, bai pertsonalki baita sozialki esna ditugun geure ametsi eusten. Bakoitzak baditu

bereak, maila profesionalean, ekonomia mailan, eta bizitzak dituen mila aldeetan, beti etorkizun hobe baten ingurukoak (...)

Arlo sozialean, garrantzi handia hartu dute alderdi politikoak. Teorian, eurek dira herritarren amets sozialei erantzuna emateko arduradunak, nahiz eta praktikan, eta sarritan, ez dituzten betetzen. Historian, denetarik kasuak izan dira; batzuk gizadiaren onerako eta beste batzuk zoritzarretarako. Agintari batzuen ametsak gizadia ondorio larrietara eramanez, miloi-ka pertsonen heriotza eraginez. Denok badugu han eta hemen eta garai guztietan izan diren gatazka larrien berri, eta gaur egun ere, zoritzarrez, badira. Bestetik, beste ameslari batzuen ametsi esker, gizadiak aurrerapauso garrantzitsuak egin ditu eta egiten ari da, bizitza hobe baten jabe izateko asmoz. Ikerlari, zientifiko eta beste milaka lagunen asmaketei esker, denok disfrutatzen ari gara bizitza hobez. Asmaketa asko isilean lortutakoak dira, inongo eta inolako laguntza eta propagandarik gabe. Ez dute kirolariak duten miresmenik, baina beraiek asmatu eta praktikan jarritako lorpeni esker materialki askoz hobeto bizi gara, eta espirituali ere beren lan ederrez gozatzeko aukera dugu. Munduan zehar mila monumentu arkitektoniko zoragarri, margolan ikusgarri, musika zoragarri eta idazlan miresgarri gizaki ameslarien lanak dira.

Amets guztiak ez dira egokiak izaten. Batzuk baztertzekoak izaten dira. Beste batzuk onartzekoak, nahiz eta noizbehinka, hasieran, ulergaitzak izaten diren eta denbora pasa behar izaten den baloratuak izateko. Honek zentzu kritikoa beharrezkoa dela esan nahi du eta nolabaiteko prestakuntza ere bai. Bi errealtatetan bizi gara: bata materiala eta bestea materialik gabekoa. Ametsak, materialik gabekoak izan arren, garrantzi handikoak dira eta bizitza pertsonalean eta sozialean kontuan hartzekoak.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



HEMEROTEKA



«Urteak eman nituen oinaze eta neke izugarriarekin, ja egiteko gogorik gabe... Horri batzen zitzaion giblean nuen lan-karga: bi seme-alaba ditut eta autonomia naiz. Ez nekien zer pasatzen zitzaidan. (...) Ezin nuen aitzinera segitu, eta erabaki nuen gaixo agiria hartzea eta nire denda ixtea. Azkenean fibromialgia diagnostikatu zidaten, 2006an. Orduan Afina elkartera jo nuen, eta haiek azaldu zidaten zer egin nezakeen hobetzeko (...) Fibromialgiak ez du diagnostiko argirik. (...) medikuek buruko arazo bat duzula pentsatu ohi dute (...) Arras gogorra da medikuarengana joatea eta hura zure aurpegian irri egiten ikustea (...) Afina elkartea nire laguntza nagusia izan da (...) Elkartek gomendatuta elikadura aldatzen eta kirol pixka bat egiten hasi nintzen eta horrek aunitz lagundu zidan. Alde emozionala ere aunitz landu nuen. Onartu nuen gaixotasun bat nuela eta harekin bizitzen ikasi behar nuela».

ANA ZUBIKOA ELIZONDO.
HITZA. 2019.05.24



«Neskato lanetan Lekeitio (Bizkaia) hasi nintzen, 19 urterekin. Bi emazteki bizi ziren etxe batean urtebete egon nintzen. Gero epaltzatarrenera joan nintzen Donibane Lohizunera (Lapurdi), eta urte eta erdi egon nintzen han. Anaiak zerbitzura joan behar zuelako etxera itzuli nintzen arte, baina berehala sasoia egitera joan nintzen (...) Epaltzatarren neskato nintzela, udan Orozkora [Bizkaia] etorri ginen; familiak etxea zuen, eta hemen egon nintzen 45 egun, eta hor ezagutu nuen Pablo nire senarra (...) Alabak koskortu zirenean, nik lana egin nahi nuen, eta eskuekin bakarrik dakit lanean: ez dut estudiorik, ez dut fitsik. Labe bat bazen orduan hemen, eta ogia egiten hasi nintzen. Egun, 78 urte ditut, eta nire ideia ogia egiten hiltzea da. Hiru egunez gaupasa egiten dugu gazteek bezala, baina beste manera batean. Ogia ortzegun, ortzirale eta larunbatetan egiten dugu, eta egun horietan 00:30ean esnatzen gara».

JULIA BARBERENA. ZUGARRAMURDI.
BERRIA. 2019.05.26

BOTA BERTSOA

LAIDA
ETXEBERRI PACHECO
SARAKO BERTSOLARIA

Maite Toyosi

*Gaurkoan erran ditzagun
gauzak argi eta garbi,
Ziburutar bat Sarara
etorri zen aspaldi
Gauza ainitz ekarriak
ditu gure herriari
Gogo bazuen harek,
beti izaten zen adi
Eskuzabala zen eta
denentzat borrokalaria
Omenaldi hau eginez
sendatu nahian zauri
Maite Toyos izan baitzen
herriarentzat gudari.*

*Mundu gogor honetatik
emazte bat zaigu joan
Horretarako hemen ga
Zuhalmandin gu gaurkoan
Pertsona oso alaia,
irribarrea ahoan!
"Euskal presoak etxera"
hori zuen hark asmoan
Eta jarraituko dugu
Hori erranez geroan
Bere arimak bizirik
segiko du itsasoan
Nahiz eta joana zaigun
betiko dugu gogoan.*

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
DenakBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

«Ikastolak eta sistema publikoa bateragarriak dira»

ELENA ZABALETA ANDRESENA NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Mikel Asiainen lekukoa hartuz, Elena Zabaleta martxoan izendatu zuten Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakari. «Ohere handiz» hartu du kargua eta «lanak ongi egitea» izanen du helburu

G. PIKABEA ORONÓZ

Duela hamar urte, alaba zaharrena Baztan Ikastolan matrikulatu zutelarik, hurbildu zen ikastolen mundurat Elena Zabaleta Andresena (Oronoz, 1978). Orduantxe ezagutu zuen ikastola barnetik, eta ez da atera geroztik. «Ikastola zer den probatzen duzularik, kutsatu egiten da. Horixe gertatu zait niri». Hala aitortu digu, ikastolan etxean bezala sentitzen dela. «Hausnartzen hasiko banintz, gaur egun ez nuke ikastola ez den bertze mundu batean ikusiko nire burua». Etxeko ikastolari lotuta eman du azken hamarkada: Guraso Elkarteko kidea izan zen, baita lehendakaria ere, 2013tik 2015era, tartean, Nafarroa Oinez Baztanen egin zen urtean. Gaur egun ikastolako Guraso Elkarteko harreman instituzionaletarako ardura duna da, baita Baztan Udal Patronatuko eta Nafarroako Ikastolen Elkarteko Nafarroa Oinez batzordeko kidea ere. Berriki, ordea, bertze urrats bat eman du: martxoaren 25etik Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria da. Miresmenez mintzo da ikastolez eta itxaropentsu hartu duen ardura berriaz.

Zer aurkitu duzu ikastolen munduan?

Arras aberatsa dela. Gurasook ere ikastolako parte gara, guraso izatea ez baita umea ikastetxean uztera bakarrik mugatzen. Gisa horretara, bai

bertze gurasoeekin baita irakasleekin ere sortzen den harremana, auzolana... izugarri aberatsak dira. Bertze gurasoen artean mugituz lagun on-onak egin ditugu eta irakasle eta zuzendariarekin elkarlanean, ikastolako juntaren bitartez, gurasooi egokiak iruditzen zaizkigun proiektuak proposatzeko aukera dugu. Hori arras aberatsa da gure seme-alabak

hazteko denboran, eta batez ere beraien heziketan.

Salto handia izan da ikastola batetik 15 ikastola biltzen dituen elkarteko lehendakaritzara ailegatzea?

Bai, salto potoloa izan da, batez ere ikuspuntua aldatu behar delako. Orain arte etxean egon naiz, Baztan Ikastolan, eta Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaritza hartu du-



Duela hamar urte ezagutu zuen Zabaletak ikastolen mundua. NIE

«IKASTOLA ZER DEN PROBATUTAKOAN, KUTSATU EGITEN DA»

«GARRANTZITSUAK DIRA GURASOEN INPLIKAZIOA ETA AUZOLANA»

dalarik ikuspuntua aldatu behar izan dut. Orain ez naiz Baztan Ikastolako bakarrik, Nafarroako 15 ikastoletakoa da. Eta Nafarroa zerbait baldin bada anitza da, hegoaldetik iparraldera eta ekialdetik mendebaldera arras diferentea da. Mila agertoki edo arazo tokatzen ahal zaizkizu, eta denak mugimenduarenak dira.

Zer erran nahi du zuretzat kargua hartzeak?

Azpi-azpitik hasi nintzen, Baztan Ikastolan auzolanean. Nolabait errateko, gela bat pintatzen hasi nintzen eta 15 ikastolen elkarteko lehendakari izatera ailegatzea ohore handia da niretako. Nire ibilbidean urrats handia izan da eta kontent nago. Nire lanak ongi egiten saiatuko naiz.

Nolako bidea egin duzu kargua hartu zenuenetik?

Asanblada bidez aukeratu ninduten. Ikastola guztiek eman zuten botoa eta ados ziren ni lehendakari izatearekin. Oraindik aste guti pasatu dira, tartean Aste Sainduko oporrak, eta martxa hartzen ari naiz. Bilerak eginez, informazioa jasotzen eta helarazten...

Aurkezpenean, familien inplikazioa aipatu zenuen...

Ikastolak herritik eta herriarendako sortu ziren, gurasoen lanaren bidez, ikastolak aitzinerat ateratzeko helburuarekin. Eta hortik doa gurasoen inplikazioa. Edozein lan egin behar delarik, gurasoak beti lanerako prest gaude. Eta ez gure ikastolan soilik; Nafarroa Oinezetan ere hor egoten gara, baita urtean zehar egiten diren bertze ekintzetan ere. Adibidez, Iruñeko sanferminetan paratzen den txosnako txandak 15 ikastoletako jendearekin osatzen ditugu. Auzolana eta gurasoen inplikazioa zutabe garrantzitsuak dira ikastolan. **Irakasleen etengabeko formazioaz eta ikasleen kompetentzia pertsonal eta sozialen garapenaz ere aritu zinen...**

Euskal Herriko ikastolak etengabe proiektu berriak edo hezkuntza sistema berriak



Martxoaren 25az geroztik Elena Zabaleta Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria da. NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA (NIE)

aztertzen ari gara. Ez bakarrik hemen, baita Europa mailan ere, formakuntzak jaso eta informazioa xurgatzen dugu. Gure inizatibarekin eta gure lanarekin curriculum propioa lortzen dugu. Helburu nagusia gure haurrek heziketa hobereena izatea da.

Zein da zure egunerokoa lehen-dakari lan honetan?

Egunero bere tartea eskaini behar izaten diot lehendakari karguari. Gehienbat etxetik egiten dut lan eta puntualki Iruñera eta Euskal Herriko Ikastolen elkarteko bileretara joan behar izaten dut. Gainerakoan, 15 ikastoletako lehendakaria izanda, enbaxadore lana egitea ere tokatzen zait, aurpegia ematea. Hala, Lekeitioko Ibilaldian izan nintzen eta Herri Urratsen ere bai.

Zein da gaur egun Nafarroako ikastolen egoera?

Nafarroa anitza denez, ez dute ja ikustekorik gure eskualdeko Baztan Ikastola, Lesakako Tantarumairu eta Berako Labiaga ikastolek eta, adibidez, Tuterako Argia ikastolak. Ingurua eta herriarren jarrera eta izaerak arras diferenteak dira. Horrek ez du erran nahi leku batzuetan gauzak lortuak direnik. Gauzak berriak egin edo daudenak aldatzeko erronkak

beti eta ikastola guztietan izaten dira. Orokorrean, ikastolak ongi daude, bakoitza bere berezitasunarekin, baina finkatuta, eta eguneroko lanarekin aitzinera eginez.

Nafarroako Ikastolen Elkartaren egoera nolakoa da?

Orain dela lau urte, elkartaren barne funtzionamendua aldatu genuen. Geroztik ikastolak eskualdeka ordezkatuak daude eta gisa honetara lana ari-nagoa izatea lortu da, pisudun batzorde edo foroak ez baitira eramangarriak. Eskualdeka hilabeteen behin elkartzen gara, eta eskualdeko ordezkari horrek berak ordezkatzeko dituen ikastoletako informazioa helarazten du Iruñera eta alderantziz, Iruñetik datorrena ere helarazten die bere eskualdeko ikastolei. Horrez gain, urtean behin ohiko eta ez-ohiko asanbladak egiten ditugu eta badira langile finkoak ere. Aldaketa onerako izan zen eta arras ongi funtzionatzen du NIEk.

«HEMENGO IKASTOLEK EZ DUTE JA IKUSTEKORIK ERRIBERAKOekin»

Bere garaian, lan-hitzarmena protesta iturri izan zen Nafarroako ikastoletako langileen artean. Orain, ordea, onartua da...

Nik kargua hartu baino egun batzuk lehenagotik sinatu zuten lan-hitzarmen berria, martxo hasieran. Urrats garrantzitsua izan da, urteetako negoziazioen ondotik; Ikastoletako langileak zutabe garrantzitsua dira gure hezkuntza elkartean eta arras baldintza duinak dituzte.

Zer lortu da?

Akordio batera iristea. Langileei eskubide berriak aitortu zaizkie, eta soldataz gain, genero berdintasunerako eta kontziliaziorako hobekuntzak egin zaizkie. Interpelazio lerro komuna lortu da instituzioekin. Orain hitzarmenaren hizkuntza eta alderdi juridikoak errebisatzeari ekinen diogu, sindikatuekin batera.

Zein harreman duzue Nafarroako Gobernuarekin?

Azken lau urteotan harremanak arras onak izan dira eta

«ERRONKAK BETI ETA IKASTOLA GUZTIETAN IZATEN DIRA»

horrek erraztasun handia eman digu lanerako orduan. Azken hauteskundeetako emaitzak ikusita, ez dakigu zer aterako den, baina orain arte izan dugun harremana mantentzea gustatuko litzaiguke.

Eta Baztango Udalarekin?

Primerakoa. Baztan Ikastola udal eskola publikoa da eta konposaketa berezia du. Hamar lagunek patronatua osatzen dugu: ikastolako lau gurasok, zuzendariak eta idazkariak, eta Udaletik alkateak eta hiru zinegotzik. Udalarekin beti harremanetan gaude eta beharraren arabera, elkartzen gara.

Gaur egun, ikastola duten ia herri guztietan D ereduko eskaintza publikoa dago. Zein da ikastolek egiten duten ekarpena?

Ni Elizondon bizi naiz eta maiz tokatu zait aditzea ez dela ikastola beharrik Baztanen, D eredua sistema publikoan badelako. Sistema publikoak bere sistema du eta ikastolak bertzea: gure seme-alaben hezkuntza gure esku dago. Ikastoletan material propioa dugu eta horrekin curriculum propioa sortzen dugu. Gurasoen parte-hartzea ere hortexe dago eta horrek ere desberdintzen ditu ikastolak. Auzo-lana ere nabarmentzekoa da. Nik uste dut biak bateragarriak direla, bai ikastolak baita sistema publikoa ere. Euskara dugu ezaugarri nagusi bietan, ikasteko, hezteko eta hazteko manierak desberdinak diren arren. Nik ikastolaren erudian sinesten dut eta horregatik defendatzen dut. Nafarroako ikastola ia guztiak kooperatibak dira, euskal gizartearen hain errotuta dagoen izaera juridikoaren bidez eta honek zerbitzu publikoko erakunde egiten ditu. Funtzionamendu demokratikoekin, nahi den hezkuntza sisteman, botereetako askatasunarekin, herritik sortu eta herriarentzat dihardute ikastolek. Herriarrek bultzatutako erakundeak dira eta horien kudeaketan familiek parte-hartze zuzena dute.



Elur, Adur, Hodei, Oier eta Naroa, ikasturte honetan Beintza-Labaiengo eskolan ibili diren bortz ikasleak. MIREN IRURZUN

Beintza-Labaiengo eskolak ateak itxiko ditu

Bost ikasle egon dira azken ikasturtean Beintza-Labaiengo eskolan. Irailetik aurrera, ordea, denak, orain arte herrian egon direnak eta lehendik Doneztebeko eskolan dabiltzan herriko haurrak Doneztebeko ikastetxera joanen dira, gurasoek han matrikulatzea erabaki dutelako

G. PIKABEA BEINTZA-LABAIEN

«Pena» hitza da Beintza-Labaien ahoz aho dabilena. Bai behinik behin askoren ahotan. Eta eskola da horren atzetik dagoena. Herrian eskola bat zabalik mantentzeko Nafarroako Gobernuak ezarritako guttieneko haur kopurua gainditzen duten arren, heldu den ikasturtean, Beintza-Labaiengo eskolak ateak itxita edukiko ditu. Ez da Nafarroako Gobernuaren erabakia izan; gurasoak dira Donezteben matrikulatzea erabaki dutenak, «bi urte daramatzagulako itxiko den edo ez den galderarekin eta horrela ezin dugulako ibili». Halaxe kontatu digu Izaskun Bertiz Beintza-Labaiengo gurasoak. Gaineratu duenez, «Gobernuak ez du eskola itxi, baina gerora ez da matrikula gehiago izanen eta orain ez bada, datorren

urtean itxiko denez, Donezteben matrikulatzea erabaki dugu guraso guztioi».

laztik bueltaka

Beintza-Labaiengo eskola itxtearena ez da oraingo eztabaida. Joan den urtean ere eskolaren jarraipena zalantzan

paratu zuten. Horregatik azaldu digu Miren Irurzun eskolako zuzendariak «iazkoa urte gogorra» izan zela. «Bortz ikasleetako bat Doneztebera joan zitekeela eta, lauzpabost ikaslerekin Hezkuntza Departamentuak eskola irekitzea zaila izanen zela adierazi zuen».



«ESKOLA TTIKIEK ALDE ON ASKO DITUZTE»

MIREN IRURZUN, ESKOLAKO IRAKASLEA



«ORAIN EZ BADA DATORREN URTEAN ITXIKO LUKETE»

IZASKUN BERTIZ, GURASOA

Segitzeko asmoz, «Saldiasko eta Beintza-Labaiengo eskola elkartzeko proiektu bat ere egin genuen, baina azkenean ez zen aurrera ateratu». Hainbeste bueltaren ondoren, «gurasoek urte bat gehiago gelditzea» erabaki zutela dio zuzendariak «eta aurtengoa azkenengoa izanen zela argi zuten. Erabaki zutenean ikuskariari jakinarazi genion».

Udala, bere aldetik, «ahal duen neurrian» eskola mantentzen saiatu dela adierazi digu Jon Telletxea alkateak. Joan den ikasturtean Gobernuko ordezkariekin hartu-emanetan ibili ziren: «nahiz eta ume gutti izan, ondoren haur gehiago sartzeko aukera izanez gero, mantentzen saiatuko zirela erran ziguten. Landa eremuetako eskolak mantendu nahi zituztela eta alde horretatik ez kezkatzeko erran ziguten». Horrez gain, «beste alternatibak» ere aipatu omen zizkieten: «Doneztebeko eskola kontzentrazioa joan beharrean, goian gauden hiruzpalau herrien artean kontzentrazio tiki bat egiteko asmoa ere erakutsi zuten. Irekiak zeuden. Gero ez dakit zer gauzatuko luketen, baina hitzez hala adierazi zuten».

Bestetik, «eskolak segituko zuen itxaropenarekin» azken bi agintaldietan Udalak hainbat mantentze-lan egin dituela ere kontatu digu: «teilatua berritu, fatxada txukundu, berogailu berria jarri... Baina horrela gertatu da». Bere hi-



«UDALA ESKOLA MANTENTZEN SAIATU DA»

JON TELLETXEA, ALKATEA

tzetan, «nahiz eta gutti izan umeak hor edukitzeko eta aurrera segitzeko konpromisoa behar da. Erabaki pertsonalak dira eta norberak hautatzen du bere umeen hezkuntza non eta nolakoa nahi duen». Alkatetarako Saldiasko kasua ekarri du gogora: «orain dela urte batzuk alderantzizko egoeran egon ziren. Hiru ikasleekin mantendu zuten eta orain 13 dira. Kopuru polita dute. Saldiasko kasuak egoera alda daitekeela erakusten du».

Irurzunek, bere aldetik, «herrian haur gehiago» badirela oroitarazi du, «baina Doneztebeko eskolara joaten dira. Horiek guztiak herriko eskolan egonen balira, Beintza-Labaiengo eskolak hamar bat ikasle izanen lituzke. Herriarrek ez badute horren aldeko apustua egiten, zaila da eskola segida izatea».

Ttikiaren alde onak

Mila ikasle baino gehiagoko ikastetxe bat utzita, duela lau urte ailegatu zen Irurzun Beintza-Labaiengo eskolara. Hango irakasle eta zuzendari izan da geroztik. Bederatzi ikasleekin hasi zuen ibilbidea eta bostekin bukatuko du, eta aitortu digunez, «pena han-

«BEHAR BAINO LEHENAGO ITXIKO DA ESKOLA»

JON TELLETXE, ALKATEA

«ESKOLARA OINEZ JOATEAK EZ DU PREZIORIK»

IZASKUN BERTIZ, GURASOA


«AGUR MODUAN ZERBAIT EGINEN DUGU»

MIREN IRURZUN, ESKOLAKO IRAKASLEA



Oier, Hodei, Elur, Adur eta Naroa gelan lanean. MIREN IRURZUN

Ikasle kopurua B. Labaiengo eskolan



diarekin». Gustura pasatu ditu lau urteak, eta «jarraitzeko prest» egonen litzatekeela ere onartu digu, eskolak «asko» eman diolako eta «ikasleekin eta gurasoekin harreman berezia eta estua» izan duelako. «Haurrak nire bigarren familia izan dira eta asko maite ditut». Hortaz, eskola ttikia eta handia balantza batean paratuko balitu, «zalantzarik gabe» aukeratu ditu ttikiak, bere ustez, handiek ez dituzten «alde on asko» dituztelako: «ikasle eta gurasoekin hurbileko harremana, haurren autonomia lantzeko aukera, irakaslearen lan egiteko askatasuna...».

Guraso izateaz gain, eskola ttiki bateko irakaslea da Bertiz eta berak ere eskola ttikietan «alde onak asko» direla uste du: «familia bat bezala gara. Hainbat adinetako ikasleak nahasturikegonik, harremanak oso hurbilekoak eta goxoak izaten dira. Elkar zaintzeko eta elkarrengandik ikasteko aukera ematen du». Ikaskuntza «oso

pertsonala» dela eta eskola handi batean «ezinezkoa» den harremana sortzen omen da «ikasle, irakasle eta familien artean». Bere kasuan, sei eta lau urteko seme-alabak herriko eskolan eduki ditu orain arte, «herrian eskola izanda haurrak herrian integratzeko egokiena» dela pentsatzen duelako. Horrekin batera, «haur bati, batez ere Haur Hezkuntzan, herriko eskolan egoteak segurtasuna eta konfiantza» ematen diola azpimarratu du Bertizek. Gainera, bere irudiko, «eskolara egunero oinez joateak ez du preziorik».

Lehen oinez, orain autobusez

Irailetik aitzinera hori izanen da ikasturte honetan Beintza-Labaiengo eskolan ibili diren Elur, Adur, Oier, Naroa eta Odeik sumatuko duten aldatetako bat. Orain arte etxetik eskolarako bidea oinez egin duten bezala, autobusez egin beharko dute. Hantxe elkartuko dira lehendik Donezteben

dabiltzan Beintza-Labaiengo beste bost ikasleekin. Orain arte, astean behin Legasako eskolara joateko hartu izan dute autobusa. Irailetik aurrera, ordean, egunero 08:30ean hartuko dute Doneztebera dauden 12 kilometroak egiteko. 09:00etan sartuko dira eskolan eta egunaren arabera ordu batean edo bertzean aterako dira: astelehenetan eta ortzegunetan 16:30ean aterata eta 17:00etan ailegatu dira herrira; astearte eta ortziralean 16:00etan aterata eta 16:30 izanen dituzte etxeratu orduko. Asteazkenetan, berriz, bazkaltzera etxera joanen dira.

Agur xumea ekain hondarrean

«Ez nuen atea itxi eta giltza bota nahi eta hortaz, eskolari agur xume bat egingen diogu». Halaxe kontatu digu zuzendariak. Ekain hondarrean egingen dute hitzordua, hilaren 26an edo 27an (lerro hauek idazterakoan, eguna zehaztu gabea zuten). «16:00etan azken hamar urteotan eskolatik pasatu garen irakasle, ikasle eta gurasoak eskolan elkartuko gara eta udal ordezkariak ere gonbidatuko ditugu». Azken urteotako argazkiekin erakusketara egingen dute, «gero, bertsu bat kantatu eta merienda egingen dugu».

Aurtengoa «etapa baten amaiera» izanen dela dio Irurzunek, gustatuko litzaiokeen arren, «zaila» ikusten baitu «behin itxiz gero, etorkizunean eskola berriz irekitzea». Telletxeak ere «oraingoz behinik behin» ez du eskola berriz irekitzeko aukerarik ikusten: «berez, oraindik segi beharreko eskola zen, baina hola gertatu da eta behar baino lehenago itxiko da». Herrian «hutsa» nabaritu du dutela dio, «haurrak eskolara sartzerakoan edo ateratzekoan mugimendua nabaritzen delako, baita patioan dauden denboran ere».

Eskola itxiko badute ere, Irurzunek «han edo hemen, garrantzitsuena haur horiek zoriontsu izatea» dela nabarmendu nahi izan du.

«Gure memoria ttikia delako sortu dugu baratzea»

MENTXU PEÑA EMAKUMEAREN MEMORIAREN BARATZEA

AITOR AROTZENA ARANTZA

2018ko uztailaren 15ean inauguratu zuten Arantzan Emakumearen Memoriaren baratzea. Han haziak emandako landareak eta landareekin batera gure zonaldeko emakumeen historiak bildu zituzten. «Espazio horren inaugurazioa lehen urrats izan zen. Honek animatu gaitu eskualdeko emakumeen historiari bilaketan eta ikerketan sakontzeko, biltzen eta idazten segitzeko. Eta horrela erreferente femeninoak edukitzen hasteko aukera zabalduko da. Hori dena Amalurrarekin lotuta», aipatu digu Mentxu Peña. Uztailaren 21ean urteurrena ospatuko dute eta egitaraua prestatzen ari dira. **Iazko uztailaren 15az geroztik hainbat lan egin dituzue...**

Baratzea auzolanaren bidez zaintzen ari gara, urtaro bakoitzari dagokion zainketa ematen. Uztailako egun hartan landatutako barazkiak, udazkeneko uztan banatu genituen Bera eta Lesakako Nagusien Egoitzetan eta Arantza eta Berako Herri Eskoletan. 2018ko azaroaren 1ean Arantzan ba-

serritarren eguna ospatu zen eta baratzeak bisitak jaso zituen. 2018ko abenduaren 29an Bortzirietako neska pilotariek sagarrondoa landatu eta berearekin egun horretarako egin dako bertsoa erein zuten. 2019 hasita, udaberri hasieran Arantzako eskolako gaztetxoek jaso dituzte gelditzen ziren azken barazkiak. Landare eta barazki berriak landatzeko lurra prestatu dugu... IKA Euskaltegiko ikasleak bisitan etorri izan dira lore bat lore bat lurrari eskaintzen...

Zer dela eta Bortzirietako Emakumearen Memoriaren Baratzea Arantzan?

Harritik Hazia antzezlanaren ondotik sortu zen ideia izan zelako Emakumearen Memoriaren Baratzea sortzea. Eta Arantzan zergatik? Lehendabiziko arrazoiak Udalak lurra eskaini zuelako eta gero, agian, aproposena delako herria bera; izan ere, baratze bat sortzeko lekuri goren eta gure begiek urrutirago eta zabalago begiratzeko aukera dutelako. Gai nontzeko herriak guttietsi gabe noski. Zein baino zein ederra goa baita.



Esther Carrizo eta Mentxu Peña, baratzeak uzta banatzen. UTZITAKO ARGAZKIA

Zergatik sortu Emakumearen Memoriaren Baratzea?

Gure memoria arront ttikia delako. Ahanztura delako nagusi, eta batez ere, emakumea. Orain hainbertze hitz egiten dela Memoriaren inguruan, badirudi emakumerik ez dela izan, eta izan bada sorgina, Juana de Arco, Agustina de Aragon, Catalina de Erauso (monja alférez)... eta horrelako berezi batzuk bertzerik ez. Gure memoria ttikia dela-

«URTEURRENEKO BESTA SAREA IRUTEN SEGITZEKO AUKERA DA»

ko, hain zuzen, sortu dugu Emakumearen Memoriaren Baratzea.

Ziklo berri bat hasi dela ere aipatu duzue...

Hasieratik talde bat osatzen hasi zen, gehiengoak emakumeak izanda. Gure artean bilkurak eginez, baratzea zaintzeko mota guzietako lanak antolatzen ditugu, egitasmoak eta beren egitarauak prestatzen eta hedatzen ditugu. Emakumearen Memoriaren Baratzea Arantzatik Bortzirietako haran osoan landareen mizelio modura jendeen artean sareak eratzea eskaintzen ari gara. Uztailaren 21ean ospatuko dugun urteurreneko besta sareak iruten segitzeko aukera izanen da.

Osasun sexualari buruzko tailerra antolatu dute ekainaren 24an Beran

TTIPI-TTAPA BERA

Osasun sexualari buruzko tailerra antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, 15 urtetik goitiko Bortzirietako gazteei zuzendua. Ekainaren 24an izanen da Berako Beralandetan, 11:30etik 13:30era eta

Gib-ari (Giza immunoeskasiaren virusa, VIH) eta STIari (sexu transmisioak infekzioak) buruzko oinarriko informazioa, segurtasun praktika erotikoa eta harreman sexualen inguruko jarraitaren inguruko informazioa eskainiko du Hiesaren Aurkako Batzorde Hiri-

tarreko sexologoak. Izen-ematea whatsapppekin egin daiteke, 634 22 36 59 zenbakian edo info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatziz.

Kontsumo arduratsuak

Ekainaren 20an, 15-20 urte arteko gazteentzako kontsumo arduratsuari buruzko tailerra emanen du Hegoak elkarteak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Go-

bernaren laguntzaz antolatua. Arantzako Baskulan izanen dute hitzordua, 18:00etan. Substantzien arrisku eta kalteen eta hauek murrizteko baliabideen inguruko informazioa emanen dute. Informazio hau modu egokian erabiltzen ikasiko dute eta arlo legala aztertuko dute. Izena emateko arestian aipatutako whatsapp zenbakia eta helbide elektronikoa erabil daitezke.

Altzateko bestak ospatuko dituzte asteburuan

Ortziralean 20:00etan botako den txupinazoarekin hasi eta igande arratsaldeko hip-hop emanaldiarekin bukatuko dira

TTIPI-TTAPA

Altzateko bestak ospatuko dituzte asteburu honetan, ortziraletik igandera, egitarau zabalarekin. Dendek eta komertzioek prestatutako saski bat ere zozketatuko dute igande arratsean.



Zikiro-jatea izanen dute larunbatean.

Ortziralea, ekainak 14

Ortziralean 20:00etan Altzateko plazan txupinazoa bota eta goxokiak banatuko dituzte. Ondoren karriketan barna kalejira egingen dute erraldoi eta buruhandiek. 20:30ean bertso-poteoa egingen dute Bortziriak, Gernika eta Barakaldoko bertso eskolekin. 22:00etan suzko zezena aterako da.

Larubata, ekainak 15

Larunbatean 10:30ean plater tiraketa izanen da. 14:00etan auzo bazkaria izanen dute Uraldea karrikan, zikiro jatea. Txartelak Purienean eta Bidaxka, Katakua, Lixoia, Xuga, Ikuilu ostatuetan salgai daude, 20 eurotan. 17:00etan haurrentzako bizikleta lasterketa egingen dute eta ondotik be-

rendua. 22:00etan suzko zezena.

Igandea, ekainak 16

Igandean 11:00etan meza izanen da. 12:00etan euskal dantzak izanen dira Altzateko plazan eta erraldoiak eta buruhandiak ere ibiliko dira. 16:00etan haur jolasak izanen dituzte. 18:00etan hip-hop emanaldia. Berako Toki Ona, Labiaga ikastola eta SJB Kidz taldeekin batera, Irungo My dance studio eta Donostiako Showtime ariko dira.

Denda eta ostatuen artean saski handi bat ere prestatu dute. Txartelak euro batean saltzen ari dira eta zozketa azken emanaldiaren ondotik egingen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasketa bukaerako ekitaldia Toki Onan

Toki Ona institutuan aurten beraien ikasketak bukatuko dituzten ikasleendako ekitaldi akademikoa egin zuten maiatzaren 24an. Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleak dira. Denetara 86 ikasle izan ziren 'Merezimendu Orla' jaso zutenak Kultur Etxean egindako ekitaldian.

Erraldoi konpartsak ate irekien jardunaldiak ekainaren 22an eta 29an

TTIPI-TTAPA

Herriko erraldoien konpartsak ate irekien jardunaldiak egingen ditu ekainaren 22an eta 29an, jende berria taldera erakartzeko. Ate irekiak ekainaren 22an eta 29an izanen dituzte Herriko Etxeko plazan eta gonbidapena zabaldu nahi diete 16 urtetik goitiko herriar guztiei hurrengo bi larunbatetan jardunaldietan parte hartzeko.

Hitzordua Herriko etxeko plazan 11:00etatik 13:00etara izanen da. Han izanen dira ikusgai erraldoiak, dantzara-



Erraldoi konpartsako kideak.

ziko dituzte eta bertaratutakoek probatzeko parada izanen dute. Konpartsako kideek urteko funtzionamendua azalduko dute: noiz entsaiatzen duten, zein bestetan dantzatzen duten, eta bertze jakingarriak.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

xirgil
jalone goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) **636 617 450**
Legia, 23 - BERA

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

San Juan bezperako besta prest du Euskara Batzordeak

Ekainaren 23ko ospakizuneko sua pizteko ardura Tantarumairu Euskal Folklore Taldearena izanen da aurten

AITOR AROTZENA

San Juan bezperarako ekitaldi antolatu du aurten ere Euskara Batzordeak, *Euskara, mingain dantza* lelopean.

Ekainaren 23an, igandean, 19:30ean hasita egingen da ekitaldi nagusia Plaza Zaharrean. Lesakako trikitilarien eta bertso-eskolaren emanaldiaren ondotik, adierazpena irakurriko eta sua piztuko du aurtengo omenduak, Tantarumairu Euskal Folklore Taldeak.

Euskara Batzordeak hiru su piztuko ditu plaza inguruan (handia, ertaina eta txikia) eta horietaz bakarrik arduratuko dela jakinarazi du.

Segidan, Lesakako dantzak dantzatzeko aukera izanen da Ezpatadantzari taldeko neska eta mutilek lagunduta, hauek sanferminetarako prestatzeko saioa egingen baitute. 21:30ean



Herriko dantzak egingen dituzte.

herri-afaria izanen da, norberak bere afariak eraman behar du. Euskara Batzordeak mahaia eta aulkiak jarriko ditu plazaren bueltan. Afaia etxean prestatu eta plazan denak elkarrekin batera afaltzeko modua izanen da, baita edariak eta bokatak plazan bertan eskuratzeko aukera ere. Afariaren ondotik, opari batzuk zozketatuko dituzte. 21:30ean dantzaldia izanen da Jeiki Hadi taldearekin.



JON MARTINEZ

'Ezagutu Dezagun Lesaka' sarituak

Haurrek bere herria, ohiturak eta historia ezagutu ditzaten Beti Gazte elkarteak Udalaren laguntzarekin urtero antolatzen duen *Ezagutu Dezagun Lesaka* lehiaketako sariak banatu zituzten maiatzaren 11n. Herriari buruzko 30 galderei erantzun zioten parte hartu zuten 37 neska-mutikoe.



Margo lehiaketan parte hartu zutenak epaimahaikideekin. AITOR AROTZENA

Bergarako Antonio Arrillagak irabazi du VII. margo lehiaketa azkarra

TTIPI-TTAPA

Elias Garralda zenaren omenez Beti Gazte zazpigarren urtez antolatutako margoketa azkarreko lehiaketa egin zen ekainaren 2an. 22 margolari helduk eta hainbat haurrek parte hartu zuten lehiaketan.

Umeen artean, LHko 1. eta 2. mailako ikasleen artean, lehen saria Julen Castro Ordokirentzat izan zen eta bigarrena Galder Baraibar Etxegarairerentzat. LHko 3. eta 4. mailako ikasleen artean, Maddi Hoyos Eguzkiagirrek eraman zuen lehen saria eta Ana Odriozola Goizuetak bigarrena. LHko

bosgarren eta seigarren mailakoen artean, lehen saria Olarixu Urria Yecorak eskuratu zuen eta bigarrena Urko Olaizola Mendegiak.

Helduen artean, 600 euroko lehen saria Bergarako (Gipuzkoa) Antonio Arrillaga Ibarluzeak eskuratu zuen eta 350 euroko bigarren saria Bilboko (Bizkaia) Juan Carlos Aresti Perezek. Herriko margolariek egindako margolan onenari emandako 150 euroko saria Jaxinto Otxoteko Altzugaraik eskuratu zuen. Epaimahaia Javier Igoa eta Elena Bezunartea margolariek osatu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

37. Txoko-Txiki lehiaketako saridunak

Ikastolak antolatutako XXXVII. Txoko-Txiki lehiaketako sariak eman ditu. Nahia Ubiria, Lizar Fernandez, Iratz Susperregi, Irati Ubiria, Saioa Orbegoza eta Maitane Erkizia (ipuinak), eta Xabat Arburua, Izaro Zelaieta, Adur Erkizia, Maddi Hoyos, Ainitze Martinez eta Nahia Pumar (ilustrazioak) dira sarituak.



Gasna lehiaketako saridunak epaimahaikide batzuekin. I. IRUNE ELIZAGOIEN

Kortariko zakurrak eta gasnak irabazi dituzte lehiaketak

Hamahiru gasna aurkeztu ziren eta hogeita bi eskulangileren lanak plazaratu zituzten ekaineko lehen igandean

IRUNE ELIZAGOIEN

XXVII. Gasna eta Artisau Ferriaren inguruan antolatutako asteburua primerako eguraldiarekin pasa da aurren.

Ekainaren 1ean III. Artzai Zakur Lehiaketa egin zen errota pareko zelaian. Bortz zakurrek hartu zuten parte eta honela gelditu zen sailkapena:

1. Julen Kortari, *Ipar* zakurrarekin (Lekaroz). 2. Beñat Bordaxuri, *Kea* zakurrarekin (Etxalar). 3. Jorge Oteiza, *Ara-kil* zakurrarekin (Mugairi). 4. Mikel Arregi, *Argizakurrarekin* (Oñati). 5. Joxe Mari Bengoa, *Zeuzakurrarekin* (Oñati).

Ondotik plazan herriko dantzarien saioa izan zen eta eguna bukatzeko Hara taldearen kontzertua Herriko Ostatuan.

Igandean goizetik artisauen postuak egon ziren ikusgai. 22 artisau postu egon ziren frontoian eguerdira arte eta denetatikikus eta eros zitekeen. Gasna lehiaketara 13 gasna aurkeztu ziren. Honela gelditu zen sailkapena:

1. Julen Arburua (Kortari, Orabidea). 120 euro, oroigarria eta bi lagunentzako asteburuko otordua Herriko Ostatuan.

2. Sokorro Almandoz (Garmendiko borda, Bera). 90 euro.

3. Eider Pikabea (Pimitxenea, Bera). 75 euro.

Herriko gasnen artean hauek izanen ziren lehenengo bi postuetan gelditu zirenak:

1. Jorge Arizaleta (Ursua). 50 euro, oroigarria eta gozoa.

2. Joseba Danboriena (Landaburuko borda). 30 euro eta lore-sorta.

Gasna lehiaketara aurkeztu ziren gasnen erdiak zozketatu ziren. Oraindik hiru saridun ez dira agertu. 4399, 4351 eta 4967 dira agertu gabeko zenbaki saridunak. Zenbaki hauekaren bat baduzu, jarri Altxatakoekin harremanetan (sare sozialen bidez, altxata@gmail.com edo 688730438).

Jende aunitz ibili zen herrian. Eguerdiko trikitilarien saioa ere arrakastatsua izan zen, baita Bankako kantarien girotutako kantu bazkaria ere. 150 lagun inguruk bazkaldu zuten frontoian eta ilunabar arte kantuan aritu ziren. Eskulan ikastaroko lanak ikusgai egon ziren eta goizean baserriko lan tresna zaharren erakusketa Iriondoan.

Trikitilari gazteen Getariako XX. trikitixa txapelketa

Ekainaren 1ean ospatu zen Getariako XX. trikitixa txapelketan parte hartu zuten Uxue Iturria eta Leire Iribarrenek. Nafarroako ordezkari bakarrak izan ziren eta bigarren postua eskuratu zuten. Trikitixa, fandangoa eta *pot pourria* jo zituzten. Zorionak!



Uxue eta Leire Getarian. I. ELIZAGOIEN



ESTEBAN IRISARRI

Lehen Jaunartzea egin dute lau haurrek

Maiatzaren 26ean Lehen Jaunartzea egin zuten Irati Mendiburu, Eneritz Iturbide, Oihan Irisarri eta Asier Telletxeak. Eguraldiak lagundu ez zuenez, elizkizunaren ondotik ez zen prozesiorik egin herrian. Ondotik, bakoitzak bere familiarekin bazkalduz, ospakizunarekin segitu zuten.

Haurraren Eguna bi egunez ospatuko dute aurren ere

Ekainaren 14an Landagain Eskolako ate irekien jardunaldia izanen da. 11:00etan Landagain Ttiki abesbatzak kontzertua eskainiko du eta ikasleek ikasturtean egindako lanen erakusketa. Ekainaren 16an XXXI. Ipuin Topaketa: 10:30etik 12:00etara eskolako ateak irekiko dituzte. 12:30ean frontoian LHikasleen ipuinak irakurriko dituzte. 13:30ean haur eta gurasoek bazkaria egingen dute frontoian. 14:30etik 17:30era Txiribultarekin animazioa. 17:30ean merienda eskainiko diete haurrei.

Bestetako kartel eta azal lehiaketa antolatu dute

Bestetako kartel eta azal lehiaketa antolatu du Kultuk Batzordeak. Kartelak A3an eta azalak A4 neurrian aurkeztu behar dira. Denentzako irekia da lehiaketa eta bakoitzak nahi bertze lan aurkez ditzake, beti ere Etxalarko besta giroa islatzen badute. Batean nahiz bertzean *Etxalarko Bestak 2019* eta *Abuztuaren 14tik 18ra* testuak derrigorrez agertu behar du. Lanak ekainaren 21eko 13:30 baino lehen aurkeztu behar dira Kultur Etxean edo kulturetxea@etxalar.eus helbidera bidalita.

Ikasturteari agur ekainaren 20ko eta 21eko ekitaldiekin

Ekainaren 20an Iruñera ateraldia egingen dute eta 21ean Haurren Eguna ospatzekotan dabilta

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, udako oporrak ate joko ditugun honetan, zenbait ekitaldi antolatu ditu eskolak, gurasoen elkararteekin batera. Lehendik, aipatzeko da maila guzietako haurrek egin berriak dituztela kanpaldietako ateraldiak. Haur Hez-

kuntzakoak ez dira herritik atera. Bortzirietako eskoletako kideekin batera Irisarrin egin dute egonaldia, maiatzeko azken bi egunetan. Lehenengo ziklokoak, 1. eta 2. mailakoak, Beiren izan dira, egun berberetan. Bigarren ziklokoek egonaldi luzexagoa

egina zuten aitzinetik Zarautzen, eta azkenik, eskolako koxkorrenei Arabako Zuhatzara joatea egokitu zaie.

Ekainaren 20 eta 21erako pres-tatu dituzte ikasturtea agurtzeko ekitaldiak: 20an Iruñera egingen duten ateraldirako bi autobus betetzea espero dute, ikasle, irakasle eta familiakideekin. Berriobeitiko Rocopolisen eskalatzeko aukera izanen dute eta arratsalderako ibilbide kulturalak antolatu dituzte. 21ean, berriz, Haurren Eguna izanen dute. Bertiko jokoez gain, 3. ziklokoek ikuskizuna prestatu dute eta futbol partida bat ere jokatze-koak dira, Beran hasiko diren 6. mailakoen agur gisa.

Sanjuanen bueltan pilota partidak, bazkaria eta gehiago prest

TTIPI-TTAPA

Eskolan antolatutako ekintzei segida emanez, ekainaren 22rako ekitaldi sailtxo bat pres-tatu du Biltoki Elkarteak. Goizez, pilotalekuan gurpil-aulkietan palaz jokatzen duten kirolariak ikusteko aukera izanen da eta bertako pilotarien arteko banakako bizpahiru partida ere bai. Ondotik bazkaria izanen elkartean eta Olaia Iantzi eta Itziar Telletxea lesakarrak izanen dira bertan bazkalondoa girotzeko.

Igandean, San Juan bezpera egunean, urteroko ohiturari jarraituz, norberak eramandakoarekin afaria egingen da pilotalekuan eta sua piztuko da plazan. Astelehenean, azkenik, meza izanen da San Juan Xarren, inguruko herrietako jendea bilduko duen elizkizuna. Herriko jubilatua Baratzondon bilduko dira ondotik, adineko herritar guzietatik irekia dagoen otorduan.



OSKAR TXOPERENA

Giro ederra izan dute Kankailu Topaketan

Eguraldi ederrarekin ospatu zen herriko konpartsak antolatutako Kankailu Topaketa. Bertakoei lagunduz, Legazpi eta Bastidakoak ibili ziren herrian barna. Konpartsak Sarrolatik egin zuen joan-etorria eta plazan bildu ziren.



ANTZUZELAI S.L. BERA • T. 948 63 13 17 info@antzuzelai.com www.antzuzelai.com	HARGINTZA FATXADAK TXIMINIAK ZOLAK TAILLA ARTISTIKOAK OBRAK	
--	--	--

LABE ZAR 948 631 076 • BERA	Astelehenetik ortziralerara: 07:15etik aitzinerara Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinerara
--	---

zalain JATETXEA RESTAURANTE Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info	
--	--

	F. LANCHAS Akutxiladorea eta bernizatzailea Parket eta parket flotatzaila jartzea Mota guztietako zolak Tel: 948 630 735 M: 607 406 781
--	---

Udalak liburutegi zerbitzua eskaini nahi du Baskulan

Astean behin edo bi aldiz ireki nahi dute eta boluntarioekin funtzionatuko luke

NEREA ALTZURI

Astean behin edo bitan irekiz, liburutegi zerbitzua eskaini nahi du Udalak Baskulan. Horretarako, ordea, irekia dagoen bitartean zaintza eta mailegu lanak egiteko boluntarioak behar dira eta egindako lana auzolan bezala hartuko da. Proiektuari buruzko informazioa Herriko Etxean dago eta argibide gehiago behar izanez gero, Eneko Sarrias zinegotziak emanen ditu.

Bertzetik, Udaleko kontuekin segituz, azken urteetan bezala, Igantziko Udalarekin egin-

dako akordioa dela eta, aurten ere aranztarrek Igantziko herriarrek ordaintzen duten tarifa bera ordainduko dute igerilekuan. Izen-ematea eta ordainketa Herriko Etxean egin behar dira.

Aurtengo zirkulazio zergaren ordainagiriak ere atera ditu Udalak. Jende aitzinean izanen dira ikusteko eta erreklamoak egiteko. Ordainketak banketxeetan helbideratuak dituztenei kontutik kobratu zaie eta helbideratuta ez dutenek hilabete osoa dute ordainketa egiteko.



AMAI APAOLAZA

Ezkio-Itsasoko pilota eskolako bisita

Ekaineko lehenbiziko asteburuan Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) pilota eskolakoak Arantzan izan ziren eta herriko pilotari gaztetxoekin pilotan aritzeko aukera izan zuten. «Esperientzia hagitz polita» izan zela eta «neska-mutikoak hagitz gustura» ibili zirela adierazi dute. Bisita bueltatzeko asmoa omen dute.

Emakumearen Memoriaren Baratzearen urteurreneko ospakizuna uztailan

N. ALTZURI

Aski polit dago Emakumearen Memoriaren Baratzeari, txukun, zain zaharrak kendua, belarrak moztua, lastoa botata... eta haziak landatuak. Iaz, uztailaren erdialdera inauguratu zutenetik auzolanean segitu dutelako dago horrela.

Iaz baratzean hazitako barazkiak, udazkenean Lesakako eta Berako adinekoen egoitzetan eta Arantzako eta Berako herrieskoletan banatu zituzten; Baserritarren Egunean, baratzea jende aunitzek bisitatu zuen. Abenduaren 29an Bor-

tzirietako neska pilotariak sagarrondoa landatu zuten eta horrekin egun horretarako egindako bertsoa erein zuten. 2019ko udaberri hasieran Arantzako eskolako gaztetxoek gelditzen ziren azken barazkiak hartu zituzten. IKA Euskaltegiko ikasleak bisitan etorri izan dira lore bat lurrari eskainiz...

Eta orain, berriz, lehenbiziko urteurreneko ospakizuna prestatzen ari dira uztailaren 21erako. Emakumearen Memoriaren Baratzeari Arantzatik Bortzirietako haranera zabal-tzea da hurrengo erronka.



G. PIKABEA

Herriko dantzen entsaioak

Agudo sartuko gara udan eta udarekin batera, herriko bestak ere etorriko dira. Jardueren artean, herriko altxorra den Dantza Luzearen emanaldia izanen da. Iaz bezala, herriar batzuk, auzolanean, haur eta gaztetxoek herriko dantzak erakusten hasi dira.





aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Maritxu Etxenike, senide eta udal ordezkariekin. MARISOL SANCHEZ

Maritxu Etxenike ohorezko alkate izendatu dute

Soroako alaba gazteenak ehun urte bete ditu maiatzaren 26an eta hogeita hamar eman zituen Madrilén

MAIDER PETRIRENA

Maritxu Etxenike Petrirena Ohorezko alkate izendatu dute 100 urte bete dituenean. 1919ko maiatzaren 26an jaio zen Soroa etxean, Miguel eta Mariaren 9 seme-alaben artean gazteena. Gaztetatik musika eta irakurketa izan ditu zale-tasun. 1954an Madrilera La-

tasa-Alzuri familiarekin batera bizitzera joan zen eta hainbat lanbide berezi izan zituen. Hiria ongi ezagutzen zuen eta Ministerioko eta bertze erakundetako garrantzi handiko pertsonak ezagutu zituen. Madrilén 30 urte inguru igaro ondoren 1984tik Sunbillan bizi da bere ilobekin batera.



ESKOLAK UTZIA

Eskolan jolasteko margolanak

Beheitiko eta goitiko eskoletako patioetan haurrek jolasean aritzeko aukera izanen dute. Joko ezberdinak margotu dituzte eta argazkian ikus daiteke emaitza bikaina izan dela. Ikasturtea akitzeko falta zaizkien egun bakanetan probestu eta irailetik aitzinera ere izanen dute jolasteko aukera.

Ikasturte bukaerako besta ospatuko dute ekainaren 21ean

Guraso Elkarteko Batzordeak, ekainaren 21ean ikasturte bukaerako besta antolatu du. Plazan bilduko dira ortziralean 19:00etan, guraso eta seme-alaben arteko jokoak egiteko. Akitzeko, bokata-jatea, diskojaia eta saski baten zozketa egingen dute.

Illarregitarrekin bertso-afaria larunbatean

Ekainaren 15ean bertsoa aforia izanen dute Bustitz ostatuan. Larunbatean 21:00etan izanen dute hitzordua. Aitzinetik, 18:30ean hasita, trikipoteoa Bustitz ostatatutik abiatuta. Bertsolariak Xabat eta Joanes Illarregi leitzarrak izanen dira. Txartelak Bustitzen salgai.



ASIER ITURRALDE

Kenpo-kai txapelketan herritarrak

Nafarroako Kenpo txapelketa jokatu zen maiatzaren 25ean Doneztebeko kiroldegian. Ainhoa Armendariz Aizkorbe, Aurkene Iturralde Ezkurra, Eneritz Bertiz Ariztegi, Aitor Sanchez Olariaga, Eneritz Iturralde Ezkurra, Nahikari Gonzalez Goikoexea eta Jone Bertiz Ariztegi aritu ziren.



MAIDER PETRIRENA

Ekaineko Malerreka Kantuz giro onean

Ekaina eguraldi onarekin hasi genuen eta giro ezin hobean. Malerreka kantuz ospatu zen herrian eta kuadrilla ederra elkartu zen kantuan herrian barna ibiltzeko. Lerro hauen bidez eskerrak emanen dizkiegu musikariei eta udalari, eskainitako hamaiketakoarengatik.

Futbol Taldearen egun handia larunbat honetan

Egitarau zabala prestatu dute aurtengo denboraldia behar den bezala agurtzeko.

MARGA ERDOZAIN

Maletak, botak, jertseak, kamisetak... ongi garbituta, heldu den denboraldirako gordeko dituzte Doneztebe Futbol Taldeko jokalariek; ospakizun unea ailegatu baita. Larunbat honetan, ekainak 15, egin dute hitzordua. 10:00etan benjamin eta ttikien partidak jokatu dituzte eta infantilentzat jokoak izanen dira. 11:30ean triangelarri jokatu dute herriko hiru taldek. 17:00etan, Santa Luzia plazan jokoak eta merienda eskainiko dizkiete benjamin eta alebinei eta ondotik,



Futbol Taldearen Eguneko irudia, iaz.

merienda izanen da. 19:30ean triki-poteoa abiatuko da eta 21:30ean afaria egingen dute. Photocall ere paratuko dute eta gauzez Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da.

Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du ekainaren 22an

M. ERDOZAIN

Musika, zinema, kirola... Denetarik hitzorduak izanen dira ondoko egunetan. Ekainaren 20an, adibidez, Agorreta musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Zineman, 18:30ean. Ondotik mokadutxoak jateko aukera izanen da.

Ekainaren 22an, berriz, arratsalde, gazteendako *Las hadas del abanico verde* eta *West side history* eta helduendako *Lucas Cámara* antzezlanak ikusteko aukera izanen da Firin Farandula antzerki taldearen eskutik. 18:30ean izanen dira Zineman. Gauetz, berriz, Ezkurra pilotalekuan dute hitzordua. Berriz ere anfitatro bikaina bihurtuko da Benito handiaren emanaldia eskaintzeko. Duela hiru urte bezala, oriotarrak eta bere

taldeak kontzertu itzela ohol-tza gainean eskaintzeko asmoa dute. 22:00etan hasiko da emanaldia eta sarrerak aitzinetik erosita 22 eurotan dau-de (Ostiz liburu-dendan, Titi ostatuan eta www.entradium.com webgunean) eta leihatilan 25 eurotan salduko dira.

Asteburua borobiltzeko, ekainaren 23an, San Juan suak eta afari autogestionatua egingen dituzte ikastetxeko jolas-tokian, 21:30ean.

Osasunaren udako topaketa

CA Osasuna Futbol Taldearen udako futbol topaketa Donezteben egingen dute ekainaren 24tik 28ra. 2007 eta 2015 urteen artean jaiotako neska mutikoek topaketahonetan parte hartzen ahalko dute. Astelehenetik ortziralerara, 08:45etik 14:00etara

Asteburuan zabalduko dituzte igerilekuko ateak

Larunbat honetan hasita, irailaren 8ra bitarte igerilekua martxan egonen da. Bono-txartelak dagoeneko kiroldegian eskuratzen ahal dira. Langileei dagokionez, hiru sorosle ariko dira eta bertze hiru ateaz, garbiketaz eta ku-deaketaz arduratuko dira.

Lameirinhas eta Hualderen argazkiak sarituak

Maiatzaren 12an egin zen II. Argazki Rallyko irabazleak hauek izan dira: *Udaberria* gaian Juan Lameirinhas eta *Doneztebeko Etxeak* gaian Mikel Hualde; bertako argazkilaririk hoberena Marivi Agesta izan da eta parte-hartzailearik gazteena Miren Irigoien.



ALICIA DEL CASTILLO

Giro ederrean XIII. Errekaren Eguna

Ekaineko lehendabiziko asteburuan, Erreka Kirol Elkartearen Egunaren hamahirugarren edizioa ospatu zuten. Egun handia larunbatean izan bazen ere, bezperan, Udalak harrera egin zion aurtien Nafarroako liga eta kopa irabazi dituen eskubaloit taldeari.



M. ERDOZAIN

Gaztetxoak erreka garbitzen

Nafarroako Gobernuak Ireki-bai proiektuak bultzatutako Ibaietako Boluntariotza programaren barrenean, ekainaren 3an Mendaurre Institutuko ikasleak eta boluntarioak Galbarialde, Ezpelura eta Ezkurra erreka garbitzen aritu ziren.

Trinitate Eguna ekainaren 16an Iturenen

Bestaberri-eguna ekainaren 23an izanen da eta mezan aingeruek eta jaunartzeko neska-mutilak bilduko dira

ARKAITZ MINDEGIA

Uda aitzineko asteburuak beteta dituzte Iturenen aurten. Hilaren 9an sei neska-mutilek lehen jaunartzea egin zuten etahorrekin batera, aipatzekoa da, maiatzean zazpi neska-mutikok aingeru egin dutela.

Datozen asteburuetarako ere hitzorduak prest dituzte. Ekaineko hirugarren igandean, hilaren 15ean, Trinitate Eguna ospatuko dute Mendaurren. Urtero bezala, goitiko ermitan mezak izanen dira. Eguerdi partean, eguraldiak laguntzen badu, bazkariak izanen dira

enbalseetan iturendar eta aurtiztarrek antolatutik. Arratsaldean dantza eta kantuan pasako dute Iturengo plazan.

Bestaberri-eguna ekainaren 23an izanen da, prozesioan aingeruko eta komunioko neska mutikok parte hartuko dute. Ondotik, Iturengo plazan Dantza-luzea dantzatuko dute, orain dela urte batzuk berreskuratu zen dantza, tradizioa eutsiz herritar batzuk dantzara animatu dira. Dantzatu nahi dutenek ostiral ilunabarreko entseguetara agertzea nahikoa izanen dute.

Urroztar bakarrak egin du jaunartzea aurten

Pasa den maiatzaren 19an Martxel Urroz urroztarrak jaunartzea egin zuen. Aurten herrian jaunartzea egin duen bakarra izan da. Familia eta lagunartean seguru egun ederra pasa zuela!



Urroztarrek II. senidetze besta egin dute

Bisita itzuli dute aurten urroztarrek. Gosaldu ondotik, bi herrien arteko lehia egin zuten eta segidan bazkaria eta dantzarako tarteak zituzten. Herritarrek egun polit hori antolatu izana eskertu dute.



Iturengo frontenis kanporaketak jokatzeko hasiak dira

Iturengo bestetan jokatu diren finalen aitzinetik kanporaketak jokatzeko ari dira. Haurrak lehenetik hasiak ziren eta neskek berriki ekin diete: Maider eta Naroa, Estefi eta Izaro, Enara eta Iratxe eta Haizea eta Irupe bikoteak ari dira. Animo neskak!

Fruta-saltzailea asteartero Iturenen izanen da

Maiatzaren 28az geroztik, asteartero, Karlos Munarriz frutak eta barazki-saltzaileak Iturengo herriko etxeko estalpean bere postua jarri ohi du. Horrela bada, astean behin 09:00etatik 13:00arte fruta herrian bertan erosteko aukera izanen dute herritarrek.



UTZITAKOAK

Donostian izan dira Iturengo ikasleak

Maiatzaren 27an Donostiara joan ziren Iturengo ikasleak egun bikaina pasatzera. Aquariumean egon ziren lehenbizi, arrainak ikusiz eta informazioa adituz. Eguna borobiltzeko itsasontzian ibili ziren Kontxako badiaren barrena. Eguraldia ez zuten hagitz ona baina ederki pasatu zuten.



Bestaberri egunean aingeruek urteko azken emanaldia egingen dute.

Urteko desioak saltoka eskatzeko eguna hilaren 23an

San Juan Bezperako ospakizunak Bestaberri-egunekoarekin bat egingen du aurten

FERMIN ETXEKOLONEA

Ekainaren 23an, igandean, mugimendu bikoitza izanen dute herrian. Izan ere, aurten Bestaberri eguna eta San Juan Bezpera egun berean ospatuko dituzte.

Gazta lehiaketa eta dantzaldia

Bestaberri egunaren harira, arratsaldean meza izanen dute eta ondotik gazta lehiaketan bilduko dira. Irabazleak, Udaren eskutik, Herriko Ostatuan bi lagunendako afaria jasoko du saritzat. Segidan, merienda izanen dute eta 18:30 alde- ra, dantzaldian bilduko dira.

Migel Angelek girotuko ditu bazterrak.

Afaria eta suak

Azken urtetako ohiturari eutsiz, herriko gaztetxo eta gurasoek plazan afalduko dute (eguraldiak laguntzen badu behintzat). Afari autogestionatua izanen da (gazteek ere normalean antolatu ohi badute ere, lerro hauek idazterakoan antolatzeko zuten). Mahaiaren bueltan lasai afaldu ondotik, eguna borobiltzeko su ttiki, kokkor zein handiak piztuko dituzte eta herritarrak saltoka ibiliko dira, urteko desioak eskatuz.



FESTAK.COM

Iruritako mendi duatloian bigarren

Mikele Etxekolonea herritarrak, Berroetako Sarai Maritorenarekin batera, Iruritako II.mendi duatloian parte hartu zuen maiatzaren 25ean. Elizondoko Itziar Etxeberria eta Lekarozko Josune Berhoren (02:41:47) ondotik sailkatu ziren bigarren postuan (03:17:10).

Merienda-afaria egingen dute ostiralean

Guraso elkarteak antolatuta, heldu den ostiralean, ekainaren 14an, udaberriko merienda-afaria izanen dute herrian. Txartelak bost eurotan saldu dituzte, herriko okindegian eta horrekin batera, herritar guztiei luzatu diete parte hartzeko gonbidapena. 19:00etan zehaztu dute zita, herriko estalpean. Gurasoek prestatutako tortilla, txistorra, xolomo... mokadutxoak eskainiko dituzte eta merienda borobiltzeko, umeei izozki bana eskainiko diete. Guztiak biltzeko aitzakia ederra izanen dute.

Herriko Ostatuaren urteurrena ospatu dute

Ekainaren 1ean Herriko Ostatuaren urteurren festa egin zuten. Trikitilariak girotutako merienda eta Tinkabella eta Guajiroak taldeen kontzertua izan zituzten. Beste urte batez bederen, zabalik izanen da ostatua.



Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HÖRMANN** banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiaz
babestu
toldo batekin



Dantzarako eta aizkora apustua ikusteko aukera izanen da aurten ere plazan. CAROLINA DOMINGUEZEK UTZIAK



San Juan besta ederrak prestatu dituzte aurten ere

Asteleheneko patata tortilla lehiaketako irabazleak 100 euroko saria eskuratuko du

TTIPI-TTAPA

Beti bezala, ekitaldiz gainezka dator San Juan bestetako egitaraua Saldiasen, ekainaren 21etik 24ra.

OSTIRALA, EKAINAK 21

20:00etan txupinazoa eta ohi-turako zopak herriko ostatuan. **Gauetz** dantzaldia Txingudi-Deejays-ekin.

LARUNBATA, EKAINAK 22

Goizean zehar umeen jokoak.

11:00etan herriko mus txapelketa. **Arratsaldean** umeen parkea (jumping, kart, gaztelu haizatuak...). **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia Ken Bat taldearekin.

IGANDEA, EKAINAK 23 SAN JUAN BEZPERA

12:00etan aizkora apostu konbinatua: Ruben Saralegi eta Jon Rekondo, Arria V.a eta Irazuren kontra. **18:00etan** Herriko gaztetxoaren arteko



Mahaiaien inguruan ere bilduko dira saldiastarrak. CAROLINA DOMINGUEZEK UTZIAK

herri-kirolak. **20:00etan** Txamukos mariatxi taldearen saioa. **22:30ean** San Juan suak.

ASTELEHENA, EKAINAK 24 SAN JUAN EGUNA

09:30ean argi-soinuak txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia, San Juan herriko patroia ohorez. **14:00etan** herri-bazkaria Muñoa eta Lizarralde bertsoariekin eta

Oihana eta Ekiñe trikitilariekin. **Iluntzean** patata tortilla lehiaketa. Sariak: lehenbizikoak 100 euro, bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 30 euro. Ondoren afaria, txapelketako tortillekin eta Udalak eskainiko dituen txistor, gazta eta edariekin. Dena Oihana eta Ekiñe trikitilariek alaitua. Bestak akitzeko su artifizialak botako dira eta Gaixoa Ni.

ORBELA
SENDERISMO ATERPENA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com


744 484 361
ttipi-ttapa


BORDALARREA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com


tantada
Iturgintza - fontanería
Tel.: 680 255 718 IMANOL ECHEVERRÍA
ERAKUSKETA Elbarren 51, LEITZA
Aire egokitua • Iturgintza orokorra
Aeroterminia • Eguzki plakak • Lurreko suak
Biomasa • Egurrezko galdarak
Peletezko galdarak eta estufak
Zoru bero-emailea • Gremioen koordinazioa
KONPROMISO GABEKO AURREKONTUAK
SALDIAS • tantadaiturgintza@gmail.com

Bidasoaldeko bertso-paper onenak saritu dituzte

182 bertso-sorta aurkeztu dituzte 32. edizio honetan eta maila nagusian Irungo Manu Goiogana suertatu da irabazle

TTIPI-TTAPA BERA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Man-komunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasoko XXXII. Bertso-paper Lehiaketako sariak banatu zituzten maiatzaren 31n Berako Kultur Etxean. Guztira 182 lan entregatu dira eta kalitatea handikoak direla azpimarratu du epaimahaiak.

Amailan, (10 urte arte), lehen saria Lesakako Hegoi Arrieta Silveirak eskuratu du, *Janari onena* lanarekin. Bigarren sa-

ria, Sarako Unax Aizpurua Ibargaraik eskuratu du *Gure Txokoa taldea* lanarekin.

B mailan (11-14 urte), lehen saria Berako Axuri Zapiain Arlegik eskuratu du, *Nire bizkotxoa* bertso-sortarengatik. Bigarren saria Arantzako Ekai Madariaga Apaolazak lortu du, *Maiatzeko azken egunak* lanarekin. Sarako Haira Aizpurua Ibargarairen *Egun berezi bat bazela gaur* lanak aipamena jaso du.

C mailan (15-18 urte) lehen saria Lesakako Iratxe Muxika Carrionek jaso du *Sekretupean*



Saridunak maiatzaren 31n Berako Kultur Etxean. UTZITAKO ARGAZKIA

bertso-sortarengatik eta bigarren saria Etxalarko Etxahun Azkarraga Fernandezek, *Mobilaren ondorioak* lanarengatik.

Manu Goiogana irundarra irabazle maila nagusian

D maila nagusian (18 urtetik goiti), Irungo Manu Goiogana Bengoetxea nagusitu da, *Ispiluko ustezko gizon zis hetero zuri, ez-gizen diruaski horri* bertso-xortarekin. Bigarren

saria, Lesakako Eneko Fernandez Maritxalarrek lortu du *Egin apustu* lanarekin. Egoitz Zelaia irundarrak epaimahaiaren aipamena jaso du, *Isilik dau den ahotsak* lanarekin.

Sari banaketaren aitzinetik, Bortzirietako bertso eskoletako ttikienek antzerkitxoak eskaini zituzten, batzuetan musika eta guzti, eta ondotik, parte-hartzaile eta laguntzailentzako merienda izan zuten Beralandetan.



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

DONEZTEBEN
neurri egindako
etxebizitzak



**Eskaintza
Berezia**

**Ikusi pisu
pilotoa!**

✓ Zure beharren arabera finantziatzea,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



AUKERA BIKAINA!
**3. pisu bat eta
estudioa**



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Mendi batzordea berrantolatzeako bilera egin dute

2020rako irteeren nondik norakoak zehazteko irailean biltzeakoak dira

FERNANDO ETXEBERRIA

Ekainaren 4an, asteartean, elkarteko mendi batzordeak bilkura egin zuen. Bertan, batzordea berrantolatzearekin batera, hurrengo bidaiak eta irteerak zehazteari ekin zieten.

Zuzendaritza taldearen aldaketarekin batera, mendi-batzordean aldaketak gertatu dira. Zehazki, Fernando Etxeberriak batzordea utzi du. Gisa bertsuan, hemendik aitzinera, zuzendaritza batzordeko lau kidek eta lau mendizalek osatuko dute taldea eta guztia kudeatzeko bi ardura-dun izanen dira: zuzendaritza batzordeko bat eta mendi taldeko berteze bat.

Bidaiak hizpide

Aldaketok zehaztearekin batera, Txamantxoiara eta Aralarra joateko irteerak anto-

latu beharraz solastatu ziren. Irteerok egin aitzinetik, ibilbidea zehaztu ahal izateko, zenbait mendizalek ibilaldia egingen dutela jakinarazi zuten. Era berean, guztia lotua dutelarik, izena emateko epea irekiko dute eta horren arabera autobusak antolatuko dituzte. Dena dela, izena emateko egun batzuk izanen direla adierazi zuten.

Mendi-irteeren aurreproiektua

Horren guztiaren ondotik, eta bilera ixteko, 2020rako mendi-irteeren aurreproiektua izan zuten hizpide. Oraindik orain, zehaztapenak emateko goizegi bada ere, irail aldera batzordea berriz biltzea adostu zuten. Orduan irteeren datak, tokiak, argazkiak, web orria, aurrekontuak... aztertuko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mendizaleak Leitzako lurretan

Kaskanta gidari zutela, 56 mendizalek mendi-ibilaldia egin zuten maiatzaren 21ean. Leitzako plazan elkartu ziren eta Okobio, Guratz eta Gorritin barrena ibili ondotik, Areson behera Leitzara itzuli eta elkartean bazkaldu zuten. Ekainaren 18an Berastegin egingen dute irteera.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Elkarteko 91 bazkide Andorran izan dira

Maiatzaren 27tik 30era elkarteko 91 kide Andorran izan ziren. Dantxarinetik eta Arantzatik abiatu ziren autobusak eta arratsaldean ailegatu ziren Andorrara. Caldea bainuetxera jo zuten lehendabizi eta biharamunean Andorran barna ibili ziren. Hirugarren egunean Ordinora joan ziren eta azken egunean Zaragozan dagoen Pilarreko basilika bisitatu zuten.

Arizkungo bestak 2019

egitaraua

Ekainak 20, ortzeguna

19:00etan dianak eta txupinazoa.
19:30ean txopo goratzea. 21:30ean Baztan zopak Beñatek alaiturik.

Ekainak 21, ortzirailea

10:00etan dianak. 11:00etan Amaia Zinkunegiren eskutik haurrendako tailerrak. 14:00etan gazte bazkaria. 17:00etan herriko haurrekin trikitixa kalejira. 18:00etan erraldoiak. 20:30ean mutil-dantzak eta gaiteroak. 23:00etan Arikun Rock: Nafarroa 1512, En Tol Sarmiento eta Dj Tirri&Tery.

Ekainak 22, larunbata

10:00etan dianak. 10:30etik aitzine-
ra Enrique's Party. 14:00etan haurren bazkaria. 18:00etan txokolate jatea. 19:00etan dantzaldia Oharkaberekin. 20:30ean mutil-dantza eta gaiteroak. 00:00etan Oharkabe. 03:00etatik aitzinera Dj Tirri&Tery.

Ekainak 23, igandea

10:00etan dianak. 11:00etan Baztango dantzarien eta herriko haurren emanaldia. 12:00etan mus txapelketa azkarra. 14:00etan zikiroa Agerraldek alaituta. 20:30ean mutil-dantzak. Ilunabarrean San Juan suak eta ondoren gaiteroak. 23:00etan guatekea elkartean.

Ekainak 24, astelehena

10:00etan dianak. 11:00etan meza. 12:00etan mutil-dantzak. 13:00etan herriko luntxa. 17:00etan herriko haurren maratona. 18:00etan Imuntzo eta Beloki trikitilarien saioa. 21:00etan mutil-dantzak eta gaiteroak. 21:30ean merienda-afaria. 00:00etan txopo botatzea eta ondotik Gaixoa ni.



Argazkiak: Valledebaztan.com



azkarate

IKUZTEGIA LAVANDERIA INDUSTRIAL

Ongi pasa bestak!

Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 209

**INDAUTO
TAILERRAK / ELITE /**

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

Ongi pasa bestak

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indauto.es

Ongi pasa bestak!!!



restaurante · jatetxea
BIXTA-EDER

OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA

948 453 358 · 690 335 327
Azpilkuetako errep. - ARIZKUN
bixtaeder@hotmail.com
www.bixtaeder.es



FORJA ZAPATA
Industrias ANCAR s.l.

BURDINA FORJATUAN
MOTA GUZTIETAKO LANAK.

Arizkun-Baztan · 948 45 30 55
industriasancar@yahoo.es

**MARMOLES
SOULE**

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



«Elkarlanari esker ateratzen dira aitzinerat Arizkungo bestak»

Idoia, Maite, Itsaso eta Jone Arizkungo bestetako danbolin nagusiak

Txinpartatikugarra sortzeko, lau eguneko egitaraua osatu dute Idoia, Maite, Itsaso eta Jonek. Beraiek dira Arizkungo bestetako danbolin nagusiak eta egitaraua betetzeko azken gauzak lotu ondotik, besten esperoan dira.

Sanjuanak aipatu eta ezin suak piztu gabe utzi: «jendetza biltzen da sanjuan bezperan. Aunitzendako bestetako ekitaldirik politena izaten da. Ezkil jotzeak eta suak bikote ederra osatzen dute».

Aspertzeko tarterik gabe

Bereziki maite dute lehenbiziko eguna: «bazan zopak gogoz eta bestondorik gabe hartzen ditugulako». Ondorengo egunetan ere ez dute aspertzeko tarterik: «egunero bada zerbait, bazan zopetatik hasi eta zikiro egunera arte. Tartean haurren eguna, gazteena eta Sanjuan eguna izaten ditugu». Eta egunegun, errepikatzen den argazkia ere bai, dantzariak betetako plazarena: «arizkundarrak franko dantzariak gara, plaza borobila dugula aprobetxatu beharra dago».

Berrikuntzei ere tokia eginez

Tradizioak soilik ez, berrikuntzek ere erakartzen dute jendea eta horren erakusle da «azken urteetan Arizkun Rock jaialdiak hartu duen indarra. Ortziralean jende aunitz etortzen da kontzertuen aitzakipean». Mimos prestatu dutenak arrakasta izatea nahi lukete orain. Ezer gutxi gehiago egin dezakete: «herritarrak bestara animatzeko barra librea jartzea izanen litzateke sekretua baina ezin dugunez, barra librerik gabe, eginen diegu gonbidapena». Suaren bueltan bildu eta denen artean besta giroa hauspotzekoa.



Erratzuko bestak 2019

egitaraua

Ekainak 27, ortzeguna

10:30etan haur-jokoak eta puzgarriak. **12:00etan** txupinazoa eta ezkil-jotzea. **Ondotik** pintxo-poteoa. **14:00etan** Izpegin gazte-bazkaria. **15:00etan** haur-jokoak eta puzgarriak. **17:00etan** Izpegiko X.igoera, txokolate jatea eta sari-banaketak. **21:00etan** Baztan zopak plazan. **Ondotik** dantzaldia Fidel akordeoilariarekin.

Ekainak 28, ortziralea

10:00etan diana. **13:00etan** poteoa. **14:00etan** bazkari herrikoia Kanpineko ostatuan. **16:30etan** Maialen Akizu, Joanes Illarregi eta Joselontxos txaranga-ekin bertso-poteoa. **17:30etan** haurrendako apar besta. **20:00etan** Txamukos mariatxiak. **21:00etan** presoen aldeko elkarretaratzea. **21:15etan** mutil-dantzak, gaiteroak eta larrain-dantza. **23:30etan** Katez, Cactus eta Kuartz.

Ekainak 29, larunbata

10:00etan diana. **11:00etan** meza. **Ondotik** mutil-dantzak, haurren dantza saioa eta luntxa plazan. **17:30etan** emaztekien frontenis txapelketako finalak. **18:30etan** pilota partidak. Patri Espinar eta Eneritz Arrieta, Iera Agirre eta Maite Ruiz De Larramendiren aurka. **Segidan** Titin III. eta Irusta, Ugaitz Elizalde eta David Merino II.aren aurka. **20:00etan** Gabenara. **21:00etan** mutil-dantzak, gaiteroak eta larrain-dantza. **21:30etan** afari herrikoia Kastonean. **23:30etan** dantzaldia Gabenara taldearekin plazan.

Ekainak 30, igandea

10:00etan dianak herriko trikitalari eta panderojoleekin. **11:00etan** Gorostapolon pilota partidak. **Ondotik** zintzur bustitzea. **14:00etan** zikiro jatea Hauspolariek alaituta. **20:00etan** The Drunken Barrels Zubi puntan. **20:30etan** mutil-dantzak, gaiteroak eta larrain-dantza. **22:00etan** dantzaldia Iparlan Frantxikorekin. **00:30etan** Euskadi Ta Askatatzund plazan.



Argazkiak: Xaloe telebista



ALBANTZENA

Santi Dendarieta

OSTATUA-DENDA

Ongi pasa herriko bestak!

Albantzenea etxea, ERRATZU - Tel: 948 453 112

SERRERIA ALEMAN S.L



Teilaturako estrukturalak
Tarimak · KVH
Laminatuak · Egur trinkoa
Tratamenduak

Frantziako errep. 2-A ERRATZU
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com



KASTONEA

LANDETxea
OSTATU-JATETXEA
Ongi pasa bestak!

31714 ERRATZU
948.453.065 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com



ALTXUKO janaridenda DENDA

EGUNEROKO EROSKETA, ETXETIK HURBIL

948 453 471

ERRATZU

ONGI
PASA
BESTAK

Kafetegia GOROSTI Okindegia



Ongi Pasa Bestak!
T. 948 453 491
iturriadea@gmail.com



Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa,
mantentze-lanak, mekanika,
elektrizitate eta pneumatikoen salmenta.
2. eskuko kotxeen salmenta.

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847 | baztangoiza@yahoo.es

Inzakardi

ongi pasa bestak!

Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488


Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

BENI
arraindegia
K. Nagusia 2 - DONEZTEBE
T. 948 450 589

Enkarguak hartzen dira



ongi pasa bestak!



EMAKUMEA
ETA
GIZONA
ONGI PASA BESTAK

Parrokia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

MIKELO
OSTATUA

Probatu...
kiloko Mikelo
txuletoia,
harrian egina

Ongi pasa
bestak!!!

- Entsalada epelak
- Plater konbinatuak
- Arrautza frijituak
- Hanburgesak
- Ogitartekoak
- Sandwichak
- Errazioak

ETXeko POSTREAK ere dasta itzazu

T. 948 450 442 Ameztia, 5 - DONEZTEBE

ONGI PASA BESTETAN!

Angie
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Cambridge English
Teacher
Member



8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

1991az geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak
prestatzen ditugu eta hagitx emaitza onekin.
Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 behe · 31740 DONEZTEBE

Doneztebeko bestak 2019



egitaraua

Ekainak 28, ortziralea

18:30ean Bezperak elizan Mendi abes-
batzaren eskutik. **20:00etan** txupinazoa.
Ondotik kalejira Doneztebeko txistula-
riekin eta Elutxa txarangarekin. Herriko
elkarte eta ostatueta zopak. **00:30ean**
Oharkabe.

Ekainak 29, larunbata

09:00etan diana gaiteroekin eta txaran-
gararekin **11:00etan** meza. Agur Donezte-
be, Trapatan eta Bandera-dantza. Goizean
zehir Elutxa txaranga eta gaiteroak ibiliko
dira herrian barna. **12:00etan** buruhaun-
diak. **13:30ean** luntxa udaletxe azpian.
15:00etan Doneztebeko III. Motorshow
Slaloma. **20:00etan** dantzaldia Alaiki mu-
sika taldearen eskutik. **22:15etan** Erreka
dantza taldearen ikuskizuna Bear Zanan.
00:00etan dantzaldia Alaiki taldearekin.

Ekainak 30, igandea

09:00etan diana gaiteroekin. **11:00etan**
kalejira Doneztebe eta Baztango gai-
teroekin, erraldoekin eta Sagarjoleak
dantzan. **12:00etan** Zaharren meza.
12:30ean bertso-saioa Soto, Enbeita
eta Illarregirekin. Gai-jartzailea: Maia-
len Belarra. **14:00etan** Gazte Burrunbak
antolatuta, bazkaria Santa Luzia plazan.
Bazkalondoan kantu zaharrak. Kalejira
kuadrillen pankartekin eta txarangare-
kin. **17:00etan** herriarteko txirindulari
gazteen topaketa. **20:00etan** Txamukos.
21:30ean Bingo herrikoia Gazte Burrun-
baren eskutik. **22:15ean** suzko zezena
Bearzanen. **00:00etan** Tirri&Tery.



APEZTEGUIA

margoak eta barnizak hidrogarbigailuak
silikongak **LORATEGIA** lanerako jantziak
eSKU erreminta abeltzaintza **BURDINDEGIA**
baratzera konpresoreak ERREMINTA ELEKTRIKOA



pezteguia Berria
ferretería - burdindegia


Leitzako Errepidea - Doneztebe
T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

www.apezteguiaberria.com

*besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



apezteguiaelizalde
arquitectura y eficiencia energética
arkitektura eta eraginkortasun energetikoa



T. 626 261 990 | laura@apezteguiaelizalde.com | Inato Irazoki Etorbidea 2, DONEZTEBE
www.apezteguiaelizalde.com

ONGI PASA
BESTAK



talleres **EDERKI** tailerra



Leitza errepidea z/g
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
talleresederki@soc.redcitroen.com

Latigillo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

**ANTONIO
ARTAZCOZ
GOÑI**

Loteria primitiva
Kinielak
Pelukeroa

T. 948 450 081

Merkatarien karrika, 8
DONEZTEBE

Mendiburu
aziendak · tratantea

*Ongi pasa
herriko bestak!*



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE


Julia

Gozotegia · Kafetegia
Nagusia, 10 DONEZTEBE Tel. 948 451 471



TERRAZA · WI-FI gunea

Ogia, tartak, pastelak, bonboiak, izozkiak... ENKARGUAK HARTZEN DIRA



ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!



Etxebizitzak eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es



ONGI PASA BESTAK!

Miguelena

**SUKALDEAK
KOMUNAK**

Etzetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 677 525 324
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



egitaraua



Uztailak 1, astelehena

09:00etan diana aurorak eta gaiteroekin. **10:00etan** lore-eskaintza San Pedro-ri elizako plazan. **11:00etan** udal tikiari ongietorria eta txupinazoa. **11:30ean** kalejira eta dantzari tikiari ikuskizuna Bearzanen. **Ondoren** dantzariarentzat lun-txa. **12:00etan** buruhaundiak ibiliko dira herrian barna. **14:00etan** udal tikiari aukeratzen parte hartu duten haurren bazkaria. **16:00etan** mus txapelketa Gazte Burrunbaren laguntzarekin. **16:00etan** haur-jolasak Bear Zanen. Udal tikiaren hasiera, diploma-banaketa eta botere-itzulera. Arratsaldean Aurorak eta Elutxa txarangarekin poteo alaia. **20:00etan** Plaza irrintzika taldearekin haurrendako dantzaldia Santa Luzia plazan. **22:15ean** suzko zezena Bear Zanen. **00:00etan** Endara Di-a.



Uztailak 2, asteartea

09:00etan diana Elutxa txarangarekin. **10:00etan** herri-gosaria Intzakardin. **14:00etan** herri-bazkaria Intzakardin: kaldereteak. **Bazkalondoa** erreka igoera. **20:00etan** La Jodedera Santa Luzia plazan. **22:15ean** suzko zezena Bear Zanen. **Ondoren** Elutxa txarangarekin kalejira herrian barna eta Gaixoa ni Santa Luzia plazan.

Doneztebeko taxiak

9 plaza

SAN MIGUEL
609 486 052

ESCUDERO
636 121 979

ordua
eskatu

MAITE ileapaindegia

Solarium-a

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Etorbidea, 4

948 451 780 - DONEZTEBE

MAKINAK ETA ZERBITZUEN ALOKAILUA

J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak



Ongi pasa
bestak

DONEZTEBE



Leitza bidea, 72 - DONEZTEBE - T. 948 451 793
T. 659 702 694 - jvjubera@gmail.com

IBARBURU
GASOLIOA ETXERA

KALEFAKZIOA - NEKAZARITZA - AUTOMOBILGINTZA

T. 610 258 595

Vicente Arocena Andueza

Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

Olatz
Zapata-denda



ONGI PASA BESTAK!!

f Olatz Zapata-denda

T. 948 450 339

Elizagibela, 5 - behea | DONEZTEBE

zrb.net
informatika

ONGI PASA BESTAK!

Merkatarien kalea, 29
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

TAXI DANI

9 Plaza | 24 orduko zerbitzua
BESTETAKO ZERBITZUAK

Ongi pasa
bestak!



DONEZTEBE
637 24 89 01



Ongi pasa
bestak!

PATXI ZAMORANO

BARNIZADURAK | LAKATUAK
KANPOALDEKO UR-BERNIZAK
BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA
AKABERA RUSTIKOAK, LAUSDURAK,
ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...

Leitza bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com



goldea talerra s.l.l.
 Nafarroa eta herri lanetanako enpresa
 eta lanaren baloreak eta konpromisoa

ongi pasa bestak!

tel./fax: 948 450 060
 e-mail: goldeatalerra@gmail.com
 Pol. Industrial Aparan. 3
 31740 Doneztebe (Nafarroa)

EROSKI city
 ENKARGUAK HARTZEN DIRA
 Ongi pasa bestak!!

T. 948 456 152
 Zazpigarutze, 8 · DONEZTEBE

JANARI-DENDA | HARATEGIA | FRUTAK

KAXKANTE ESKABAZIOAK
 Inoiz baino hobe, leku estuetan ere

Miguel Angel Oyarzabal
 Egurretxe, Donamariko bidea
 31740 Doneztebe

608 978 210
 kaxkante.eskabazioak@gmail.com

Mailposta publizitate banaketak

ongi pasa bestak!!

Inprimategia **Publizitate banaketak**

Zure inprenta eta publizitate banaketarako enpresa

Arribilagako bidea, 55
 31793 Narbarte

686 747 713
 648 847 167

www.mailpostabuzoneos.com
 amaia@mailpostabuzoneos.com

«Seniorretan nesken taldea aterako balitz denoi ilusioa eginen liguke»

Iban MINDEGIA Errekako entrenatzailea

Bolo-bolo dabil azken aldian Erreka eskubaloia taldearen izena. Ez dituzte alferrik irabazi liga eta kopa. Lorpen horretan badu zeresana Iban Mindegia, taldearen gibelean, erdi itzaleko lana eginaz baitabil doneztebarra: «bi urte daramatzat senior taldearen entrenatzaile lanetan». Pozik dago lortutako emaitzekin eta nabari zaio eskubaloia «bihotzez bizi» duela, «hagitz gustura egoten naiz entrenamenduetan eta partidak lana egin ondotik heldu den sari bat bezala ulertzen ditut».

Senior taldean gorakada

Familiatik datorkio afizioa: «ttikitan hasi nintzen eskubaloian, aita entrenatzaile zen eta anaia ere betitik ibili izan da eskubaloian. 19 urte nituenean hasi nintzen entrenatzaile bezala, denara hamar bat urte edo badira honetan ari naizela». Urte hauetan guztietan aldaketa nabaritu du Erreka eskubaloia taldearen baitan, «batez ere jende kopuruan nabari da. Senior taldean jende aunitz gaude, 16-17 jokalar biltzen dira entrenamenduetan eta horrek kalitateko lana egiteko aukera ematen du».

Ardura berak, lana besteek

Astean bi egunez aritzen da entrenatzaile lanetan «lana bukatu ondotik egiten ditugu entrenamenduak eta asteburuetan elkarrekin joaten gara partidak jokatzera».



Konpromisoa eskatzen duela dio, baina, «taldean giroa ona denean, gauzak erraz egiten dira».

Entrenatzaile karguak, izan dezakeen karga ez dela hainbertzekoa ere aipatu du: «nik hartzen ditut erabakiak baina gero jokalariek dira huts egin edo asmatzen dutenak. Izan ditugu lau partida gol bakarragatik irabazi ditugunak, haiek sartu dituzte golak. Berdindu, galdu edo irabazi, nik erabakia hartua nuen. Zailena hori neurtzea da». Dena dela, argi dio emaitzak baino gehiago: «jokalariek duten guztia ematen dutela ikusteak» asetzen dutela: «etorri entrenatzera, aritu eta kitto! Denei jokatzeko aukera ematea inportantea da». Emaitza onak pizgarria dira bere ustetan: «giro ona mantendu

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!!

Juanotena Zurgina
Juantxo Juanotena

639 855 120 | juanotenazurgina@gmail.com | Doneztebe



eta jendeak motibatuta segitzeko balio dute».

Etorkizuneko jokalaririk

Kirolariak motibatzen eta baita herritarrek ere: «giro berezia sortu da herrian eskubaloien bueltan. Haur aunitz ikusten da orain eskubaloian jolasten eta hori hagitz polita da. Partidak ikustera ere familian etortzen dira eta horrek giro berezia sortzen du». Gainera, tikitatik harria sartzea etorkizuna ziurtatzeko gakoa dela uste du: «partidak ikusi, entrenatzen hasi... inguruan giro hori nabaritzen badute hori nahi dute. Uste dut Erreka taldeak bultzada polita eman diola Malerrekan eskubaloari». Badute, ordea, erronka bat: «duela hiru urte edo izan genuen azkeneko senior mailako nesken taldea. Kadete eta infantil mailan ari dira, baina arrazoi bat edo bertzeta dela tarteko seniorretan ez. Triste da». Deia egin die beraz: «animatu nahiko nituzte, taldea aterako balitz denoi ilusioa egingen liguke».

Bestarako askatasun osoa

Denboraldia akituta, «ongi irabazia» omen dute taldekideek bestarako baimena, «askatasun osoa dute, bakoitzak kontrola dezala bere burua». Berak, bere aldetik, egunez egun erabakiko omen du zein ekitalditara joan, bestara atera edo ez «ez naiz tradizio zalea, txupinazioan lehendabiziko egunean ateratzea gustuko dut eta hil arte bestan ibiltzea, baina hortik aurrera momentuko gorputzaldiaren arabera erabakitzen dut zer egin. Dagoenaz disfrutatzen dut, askorik pentsatu gabe ekitaldi hontara edo hartara joan behar dudala». Aurten txupinazioa ortziralean izanik «giro berezia» izanen dela uste du «poteoarekin hasiko dugu besta, afarian zopak janen ditugu kuadrilarekin eta gero gaupasa izanen da». Jendearekin elkartzeko aitzakia bikaina dira bere ustez bestak: «batekin eta bertzarekin solasean aritzekoa». Eta nork daki, fitxaje berriren bat egitekoa ere bai akaso. Heldu den ikasturterako merkaturatua mugitzen hasi beharra dago.

ONGI PASA
BESTAK!

Clinica Dental

IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hartz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713

Pitti
ONGI PASA
BESTAK!!
ESKABAZIOAK

MINI ESKABAZIO
eta **GARRAIO LANAK**
enpresa eta
partikularrentzat
T 616 513 491
T/F 948 451 389
Ezpelura, 1 - **DONEZTEBE**
pittieskabazioak@hotmail.com

MALE
REKA
KUSTOM

Arropa
eta osagarri
pertsonalizatuak



Nagusia, 1 - Doneztebe T. 948 451 571 / 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka



ALBAITARITZA
ZENTRO
TEKNIKOA

ONGI PASA BESTAK!

Rosa Seminario, 15 • **DONEZTEBE**
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net

eskaintza baliagarriak
2019ko ekainaren 28ra arte

STIHL

LORATEGIRIK
PERFEKTUENA
ESKAINTZARIK HOBERENEI ESKER

ongi
pasa
bestak!

ETORRI ZURE DENDA ESPEZIALISTARA

BANATZAILEA

José Luis San Miguel

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711
www.joseluisanmiguel.com



Ongi pasa bestak!

Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271



Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE



**DON
EZTE
BEKO
BESTAK**

2019

EKAINAREN 28tik
UZTAILAREN 2RA

Herritar eta bisitari
guztioi, errespetuz
besta egin!
Doneztebeko Udala




Kimetz
Belardenda



lorea

nutrizio eta dietetika
elkartzeko kontzientea

info@kimetzelardenda.com | lorea@kimetzelardenda.com

Ongi pasa bestak!

T. 948 451 473 | DONEZTEBE
www.kimetzelardenda.com




**ONGI PASA
BESTAK!**

**24 ORDUKO
ZERBITZUA**

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN
BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN
TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN

ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue) • TELEFONOA ETA FAXA • APARKALEKUA • KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA • ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA



SUPERMERKATUKO PREZIOAK

HAY PIZZAS
CALIENTES
PARA
LLEVAR



GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

«Dirulaguntzak ongi etorriak dira, baina gehien behar duguna gazteen inplikazioa da»

Maidar Omar Porroy Gazte Burrunbako kidea



Motxila bizkarrean eta irria ezpainean harat-honatean dabilen gaztea da Maidar Omar. Astegunez Iruñean bizi da eta ortziralea ailegatu orduko, «kontent» hartzen du herrirako noranzkoa. Herrian egiten du bizia eta bizia ematen dio herriak eta badaki gustuko dituen herriko bestetaz gozatu ahal izateko lan egin beharra dagoe-l. Horrexegatik, «duela lau urte» Gazte Burrunba elkartearen sartzeara erabaki zuen: «hasiera hartan ekitaldiak antolatzeke hamar lagun inguru biltzen ginen arren, pixkan-pixkan, jendeak ardura horiek hartzeari utzi zion». Bazkideen «gogoia italtzen» ari zela oharturik, elkartea indarberritzeko bideari ekin zieten maiatzean: «gazte aunitz laguntzeko prest egon ziren eta horrek eman zigun aitzinera egiteko indarra».

Herriari bizitasuna emateko

Argi dute «jendearen parte-hartzearen bidez ekitaldi gehiago eta errazago» antolatu ahal izanen dituztela eta herriari «gazte mugimendua, bizitasuna» emateko gai izanen direla: «inauteri eta besta ttikiez gainera, bestetan txosna paratu, gazteendako ekintzak, kantu-bazkariak, mus-txapelketak... antolatu nahi genituzkeelako egin genuen deia». Geroztik bazkide kopuruak goiti egin du, baina, «herrian gazte aunitz garelako ikusita, gutti garelako erranen nuke». Are gehiago, zazpi baino ez dira antolakuntzan dabilenak: «hiru berriki sartuak». Argi dute zein den elkarrearen erronka: «parte-hartzea suspertzea». Inplikazio hori ezinbertzekoa baitzaie «herria girotu eta laguntzeko» garatu nahi dituzten bertzelako jardueretarako: «hitzaldiak, mendi-irteerak, tailerak... ditugu burutan».

Momentuz, herriko beste begira ari dira: «Gazte Egunerako bazkaria, sorpresaren bat eta bingoaz gain, mus txapelketa egitekoa dugu. Egunero, arratsaldean eta gauez txosna irekiko dugu...». Antolatze-lanetan ibiltzea ez da oztopo Omarrentzat «orain gehiago bizi ditut bestak. Lanerako goiz mugitu behar izaten dugu baina sortzen den giroak merezi du».

Lana eta gozamina eskutik

Gogotsu dago, bestetarako prest eta lehendabiziko egunaren zain: «hasiera berezia da, kuadrilla-bazkaria egiten dugu, ostatuetan pote bat hartu, txupinazora joan eta ondorengo parranda». Biharamuneko Agur Doneztebe, trapatan- eta bandera-dantzak ere nabarmendu ditu: «polita eta ikusgarria izaten da». Bertze egunetan ere badute zertaz gozatua: «herri-bazkaria, Slaloma, Errekako dantzarien saioa... arront politikak dira». Herrikoak izaki, berrendako ez dago Doneztebeko besten parekorik. Dena dela: «bestak ostegunarekin hasiko balira aunitzez hobe. Herriarrok lehendabiziko egunean elkarrekin egiteko eta lasai hasteko. Ortziralean jende dezentetortzen da, eta ongi-etorriak badira ere, herriko besten xarma galdu egiten da».

Momentuz datozen bezala hartu beharko ditu eta uda bukaeran «eguzkia joan eta parrandak akitu» bitartean batetik bertzerara ibiliko da inguruko bestetan ere gozatuz. Horretarako baitira udako aste-buruak.

sare akademia

DBH ETA BATXILERGOA
- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA

LEHEN HEZKUNTZA

- ERREFORTZU KLASAK IKASGAI DESBERDINETAN

Talde txikitik eta jarraipen pertsonalizatuarekin.

2019-2020ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.
Ekainak 28 baino lehen apuntatu gero iraila eta urria
%10eko deskontuarekin.

INFORMAZIO GEHIAGO:

T. 615561458 (Nerea)

Emaila: akademiasare@gmail.com

Web orria: sites.google.com/view/sareakademia

Leizako errepidea 29

31740 Doneztebe



Ongi pasa bestak!

Allianz



Aseguroa
Inbertsioak

Eztegara, 26 • BERA • T. 948 625 259 • Fax 948 625 264
Parrokia, 21 • DONEZTEBE • T. 948 450 266 • M. 691 384 651
arnedo.indaa@allianzmed.es



Doneztebe autoeskola



A1 - A - B - BTP - C1
C eta E karnetak
ateratzen ahal dira
"35 orduko CAP ikastaroak"

BESTA ONAK PASA!

948 451 929

Leizako errepidea 2 behea DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com



Sampi Aragón S.L.

Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura



T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com



KULTURKARI.com

Diseinu grafikoa | Publizitatea

Jatetxe eta ostatuentzat
menuak eta kartak.
PVCn, paperean...

erran.
eus



**MAITE
MANGADO**
ARKITEKTURA
& DISEINUA

Ongi pasa herriko bestak!

T 434 653 035 091
www.maitemangado.com
Doneztebe (Na)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuaren Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es | www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

**Mendaur
Motor**

AUTOEN KONPONKETA ETA SALMENTA
TXAPA ETA PINTURA



Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

**MUEBLES
TELLETXEA**
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Dekorazio proiektu integralak

Euskal Herria Zuzenean ekainaren 28tik 30era

Feminismoaz, besta ereduaz, burujabetzaz, G7az eta migrazioaz hausnartzeko espazio bat bermatu nahi izan dute

TTIPI-TTAPA

EHZ festibala Baxe-Nafarroa-ko Irisarri herrian pausatuko da ekainaren 28tik 30era. Ideia berritzaileekin eta 23 urteko ibilbidea soinean, aurtengoa «hitzordu berezia» izanen dute.

Programazio «anitza»

Aurten, Euskal Herriko artistak hobeki ezagutaraziko dituzte. Rap, Rock, Pop, Reggae, Cumbia doinuak izanen dira entzungai.

Musika talde nagusien artean, Iseo & Dodosound, Niña Coyote eta Chico Tornado,

Willis Drummond eta Gari & Maldanbera aipa daitezke. Zalantzarik gabe, Oihan Oliarj-ines zuberotarraren Oihane-ko Zühainetan eta Ray Fernandez kubatarraren kontzertuak izanen dira ikusmin gehien piztuko dutenak. Zenbait taldek haien obrak aurkeztuko dituzte festibalean, haien artean dira Pelax, Rodeo, Alba, Ibil Bedi eta Diabolo Kiwi.

Anari, Old School Funky Family, Cumbiam'bero, Liher, Manu Louis, The Very Small Orchestra, Lu Rois, Izaki gardenak, Koban, Nizuri Tazu-

neri, Montauk eta Broken Brothers Brass Band izanen dira EHZ Festibalaren eszenaren jabe eginen direnak.

Ikusgarri mailan, Led Silhouette dantza konpainiaren eta Toi d'abord zirkoarenak aipa daitezke. Lehenak, Orbita ikusgarria estreinatuko du, EHZ Festibalerako propio eraturiko sorkuntza eta Gaizka Sarasola musikariaren konposizioek lagunduko dutena.

Hausnarketa eta eztabaida

Aurten, arreta berezia ezarri zaio hausnartzeko espazio bat bermatzeari. Aurtengo edukiak bost ildoren inguruan osatu dira: feminismoa, besta ereduaz, burujabetza-autogestioa, G7-a

eta migrazioa. Ildo bakoitza hainbat hitzaldi, eztabaida eta mahai inguruz osatua da, eta jarraipen logiko bat ukanen dute. Tailer horietan parte hartu nahiko duten festibalariek izen-eman beharko dute aitzinetik. Tailerrak adituen eta eragileen ekarpenekin diseinatu dituzte, eta helburua parte-hartzaileek gaur egungo erronkei buruz hausnartzea, iritziak trukatzeta eta horietan sakontzea izanen dute.

Sartzea

Bertso-poteo, txaranga eta dantza-emanaldiek giroa dituzte bazterrak. Herriko plazako gunea urririk izanen da eta tailer, hitzaldi eta ikusgarri andana eskainiko dituzte. Tikienek Haurren Xokoan aukera bikaina izanen dute: tailerrak, puzgarriak, zirko ikastaroak, magia... Kontzertuak ondoko pentzean izanen dira eta sartzeak 55 eurotan daude salgai ehz.eus atarian.

AURTENGO EDIZIOA POSIBLE IZATEKO 500 GALTZAGORRI BEHARKO DITUZTE

IRISARRI (Baxe Nafarroa) Ekainak 28/29/30 Juin

ISEO & DODOSOUND LU ROIS WILLIS DRUMMOND
OIHANEKO ZÜHAINETAN ANARI RODEO PELAX
GARI & MALDANBERA RAY FERNANDEZ IZAKI GARDENAK
DIABOLO KIWI THE VERY SMALL ORCHESTRA
KOBAN OLD SCHOOL FUNKY FAMILY LIHER MONTAUK
CUMBIAM'BERO TXARANGAK IBIL BEDI MANU LOUIS ELEKTRO BUIAKA
ASTOKILLO CIRCUS LED SILHOUETTE TOI D'ABORD TXAKATUK
NIZURI TAZUNERI BROKEN BROTHERS BRASS BAND
NIÑA COYOTE & CHICO TORNADO HAURREN XOKOA
ZIKIROA TAILERRAK EZTABAIDAK

ehz.eus

Suaren bueltan herri-afaria egingen dute

Autogestionatua izanen da eta herritarrek parte hartzera gonbidatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Sua izanen da herri gehienetan ekainaren 23ko, igandeko, protagonista. Horren bueltan bilduko dira han eta hemen. Goizuetan, esate baterako, herri-afaria egiteko baliatuko dute eguna. Hala, herritarrek momentu polita partekatze

aukera izanen dute Sanjuan gau ederrean. Bakoitzak bere afaria eraman beharko du eta afalondoan bata bestearen atzetik saltoka ibiliko dira. Lerro hauek idazterakoan ordutegia zehazteke zuten. Dena dela, adostutakoan horren berri emanen dute.



FELIX LOIARTE

Ozenki abesbatzaren urteurrenean

Ereñozuko Ozenki abesbatzaren 25. urteurrenaren harira, Hernaniko Biteri Kultur etxean, Doinu zale Akordeoi orkestrak, Ozenkik, Kantuzek eta Umore Ona abesbatzak kontzertua eskaini zuten. Ondoren, guztiek elkarrekin, Akarregi sagardotegian afaldu zuten.

'Xapo' aldizkariaren 18. zenbakia kalean da dagoeneko

Kultur taldeak eta Euskara Zerbitzuak argitaratzen duen *Xapo* urtekariaren 18. zenbakia kalean da dagoeneko. Zaha-gi-dantza eta emakumeen presentzia, eskolako ikasleen ekarpena, argazkiak, nazioarteko jaia... bildu dituzte. Etzex etxe banatu dute.

Udalak agintaldian egindako lanen berri eman du

Udal aldizkariaren bidez, 2015-2019 agintaldian mendian, turismoan, hirigintzan, gizarte zerbitzuan, komunikazioan, kulturaren eta euskararen... egindako lanen berri zehatza bildu dute. Nondik norakoen eta inbertsioen berri zehatza www.goizueta.eus atarian.



FELIX LOIARTE

Eskola arteko topaketa jendetsua

Jai giroan elkartzeko, ongi pasatzeko, herria ezagutzeko, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harremanak lantzeko, Arano, Areso, Goizueta, Ezkurra eta Leitzako haur, guraso eta eskolen arteko topaketa ospatu zuten maiatzaren 26an. Jokoak, tailerrak, bazkaria, musika... izan zituzten.



UTZITAKOA

Apezetxea eta Perurena irabazle pilotan

Maiatzaren 25ean, Umore Onak antolatuta, pilota gozoarekin jokatu ohi duten binakako txapelketa azkarra izan zuten Goizuetan. Bederatzi bikotek parte hartu zuten eta Oier Apezetxea eta Mikel Perurena izan ziren txapeldun; Jon Zabaleta eta Ekaitz Narbarte, berriz, txapeldunorde. Giro ederra izan zuten.



Auzolanean aritu ziren erreka garbitzen eta bertako arazoaz solasean.

Ekainaren 1ean egindako erreka garbiketak gogoetarako tartea eman du

AINHOA ANSA

Auzolanean erreka garbitzeko deia egin zegoen ekainaren 1erako eta goizean, 10:00etarako Hernani, Ereñotzu eta Aranoko jendea elkartua zen Urumeak zeharkatzen duen Abaño auzoan. Goizuetarrak ere, egun berean, Arranbideko zonaldean aritu ziren zeregintza berean.

Bildutako gogoetak

Ekintzaren helburua erreka bazterra garbitu eta bildutakoaren gainean talde hausnarketa egitea zen; erreka bazterra horren zikin egotea zergatik eta nolatan gertatzen den asmatzea. Gauza jakina da udaran erreka aisialdirako espazio bilakatzen dela bertako zein kanpokoentzat eta «askok zainduko badute ere, beste askok eta askok ez dutela hala egiten». Horren era-

kusle da, «goizean erreka garbiketari 20 lagun aritutako bi lekuetan, arratsalderako, zabor poltsak eta harrika botatako ontzi eta plastikoa agertu izana. Lotsagarria». Horregatik, ekimenean parte hartu zutenek argi adierazi nahi dute, «ingurua zaintzearen ardura guztionak» dela. Izan ere, erabiltzaileak arduraz jardungo balira: «inguruko herritarrok ez genuke garbiketa auzolanak deitzen ibili beharrik izanen». Gaineratu dute: «auzolanak politak dira, eta egin egin behar dira, baina ez inoren axolagabekeriak konpontzen aritzeko! Zentzu horretan nekatuak gaude». Honekin batera, erreka gerturatzean, autoak errepidea oztopatu gabe apartatzeko eskatzea ere zentzuzkoa iruditzen zaie. Laburbilduz, «gozatu inguruaz baina, eman arnas pixka bat Urumeari!».

Guifi.net internet sarea ekartzeko pausoak eman ditu Jalki elkarteak

OHIANA KALPARSORO

Ekainaren 8an, Maisuenean aurkezteko zuten Jalki Kultur Elkartekoek Guifi.net sarea herrira ekartzeko prestatu duten aurreproiektua. Herri-tarrei nondik norako zehatzak azaldu nahi zizkieten: zerbitzu mota, kostua, aire bidezko

internet sare askea izatearen abantailak... Zerbitzua eskuratu nahi duenak izena eman beharko du eta dagoeneko irekia dago izen-emate epea. Gaiaren inguruko informazio gehiago lortu nahi duenak JALKI.kulturelkarrea@gmail.com helbidera idatz dezake.



Eskean ibiliko dira lagunartekoak ostiral eta larunbatean. ARTXIBOA

Pestarako gonbita ekaineko azken bi asteburuetan

Ekainaren 23an, San Juan bezpera eta 28an eta 29an sanpedroak ospatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Santuen aitzakian, pesta giroa izango da nagusi ekaineko azken bi asteburuetan. San Juan bezperako ekitaldiak antolatuak dituzte dagoeneko guraso elkarteak eta Udalak eta lagunartekoak ere prest dituzte sanpedroetakoak.

San Juan bezpera

Aspaldiko ohiturari eutsiz, suaren bueltan bilduko dira beste behin ere herritarrek. Afalondoa piztuko dituzte suak baina arratsaldean, nabaritu da pesta giroa. Guraso elkarteak haur-jolasak eta txokolate jatea antolatu ditu. Herri-afaria izango da gero eta, ohikoa denez, edatekoa Udalak jarri eta bakoitzak etxetik eramango du jatekoa. Herriko haurrak dagoeneko biltzen hasiak diren kartoiak, egurrak... baliatuta sua piztuko dute gero eta suaren gainetik saltoka, izpiritu txarrak aldentuko dituzte

Sanpedroak bi egunez

Ekainaren 28an, ostiralarekin, San Pedro eguna ospatuko dute. 17:00etan meza izango

da eta ondoren merienda. 18:00etan lagunartekoak eskean aterako dira herriko etxeetan barna. Erronda bukatuta, 21:00ak aldera lagunartekoak afaria izango dute.

Biharamunean, bezperako ajea soinean izanagatik ez dira gazteak berandu arte ohean gertatuko. 09:00 egina dute gosaltzeko hitzordua eta handik 11:00 aldera, baserrietako eskean abiatuko dira trikitilariekin. 18:00etan Berrobiko Txalo-Talo antzerki taldeak emanaldia eskainiko du. V. Antzez Motz lehiaketan hiru sari eskuratu berri ditu taldeak *Konplizeak* lanarekin eta hain juxtu, lan horren moldaketa bat taularatzeko asmoa dute. 19:00etan sagardo dastaketa eta pintxoak izango dira eta 21:30 aldera herri-afaria. Afalondoa Kenbat musika taldeak girotuko du.

ANTZERKIA ETA SAGARDO DASTAKETA LARUNBATEAN



Egunero, 11:00etatik 20:00etara egonen dira zabalik. ARTXIBOA

Ekainaren 15ean irekiko dituzte Udal igerilekuak

Bonoak kiroldegian eskura daitezke eta ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 24ra arte egonen da zabalik

JM BARRIOLA

Ekain erdialdetik aurrera herriko igerilekuez gozatzeko aukera izanen da. Irailaren 15era arte egonen dira zabalik, egunero, 11:00etatik 20:00etara. Herriko jaietan izanen da aldaketa bakarra, orduan 09:00etatik 14:00etara irekiko dute eta abuztuaren 11n itxita egonen da.

Uztailean ikastaroak eskaintzeko asmoa ere badute. 3-12 urte bitarteko neska-mutikoentzat igeriketa ikastaro trinkoak eskainiko dituzte: bi taldetan banatuta, 3-5 urte arteko haurrentzat hastapeneko

ikastaroak eta 6-12 urte artekoentzat hobekuntza ikastaroak. Gazteek ere izanen dute aukera, sasoi fisikoa hobetzeko *gazte training* ikastaroa eskainiko baita. Eta izen-emandakoen mailaren eta eskariaren arabera helduentzako ikastaroak egiteko asmoa ere badute. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak kiroldegira jo edo *leitza.eus* web orrian kontsulta dezake. Izena emateko epea ekainaren 24an bukatuko da. Igerilekurako bonoak ere dagoeneko eskura daitezke kiroldegian.

Plazaolako bideko hesiak berritu ditu Udalak

Geltokia eta Uitziko tunelaren artean dauden ia 8 kilometroko bidean egin dituzte moldaketak. Akazia erabili dute hesiak egiteko, hezetasunari hobeto aurre egingen diolakoan. 48.000 euroko kostua izan dute lanek. Geltokia eraberritzeko lanetan ere buru-belarri ari dira.

'Herri baratzeak, herri ondarea' ibilaldia 21ean

Ostiralean, 18:00etan, Karra-petik abiatuta herri baratzeetara bisita antolatu dute Udalak, LeitzEko eta Bertatik Bertarak. Jakoba Errekondo gonbidatu dute eta garaian garaiko produktuen sustapenaz eta praktika onez hitz egiteko tarteak egonen da.



E.IRAOLA

Plaza bete jende 41. Eskulangile Azokan

Eguraldia lagun, jendetza bildu zen ekainaren 2an egin zen Eskulangile Azokan. Berrogeita bi eskulangilek plazaratu zituzten beren produktuak; tartean ziren Okille tailerrekoen eskulanak eta Villabonatarren taloak. Sarek arte lan bat zozketatu zuen eta Unai Zabaletari egokitu zitzaion.

M8 mobilizazioekin bat egin zuten bi kidek 600 euroko isuna jaso dute

JM BARRIOLA

Martxoaren 8an Leitzaldean egin zen greba feministan parte hartu zuten bi lagunek 600na euroko isuna jaso dute. «Mobilizazio egunari hasiera emateko gauerdian egin zen kazeroladan herria aztoratu, errepideko ibilgailuak oztopatu

eta gidarien eta beraien burua arriskuan jarri izana» leporatu diete. Ekimenean parte hartu zutenek adierazi zutenek, «ibilgailu bakar batekin ere ez zuen topo egin martxak, eta beraz, salatu dutena gezurra da». Diru-bilketa egin dute isuna ordaintzen laguntzeko.

ONCEko kabina tokiz aldatu dute espaloia libre uzteko

Kulunkaren parean zegoen ONCEko kabina Astiz aldamenera lekualdatzea erabaki du Udalak. Metro gutxi batzuk mugituta, espaloitik kendu eta oinezkoek ez die trabarik egingen. ONCErekin hitzarmena egiteko ere baliatu du aukera Udalak.

Sanjuan bezperako ospakizunak prest dituzte

Ekainaren 23an, 18:30ean umeek ingurutxoak dantzatzuko dute eta ondoren txistor opilak eta freskagarriak banatuko dituzte. 21:30ean herri-afaria izanen dute, afalondoan dultzaineroak eta gauerdiak suak piztuko dituzte. Pestarekin segitzeko aukera izanen da.

ALKE eta Jo ala Jo diruz lagundu ditu Kultura Sailak

Orantzaroa: Leitzako Olentzero eta Mutildantza eguna: Pirinoetan dantzan proiektuak gauzatzeko, 4.000 eta 5.390 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Kultura departamenduaren bidez, *Sustraiak 2019* dirulaguntzak banatu ditu. Tokian tokiko elkarteek herri kultura tradizionala sustatzeko egiten duten lana saritzeko 80.000 euro banatu dituzte Nafarroako 15 kultur elkarteren artean. Dirulaguntza jaso dutenen artean, bi dira eskualdekoak: Altzadi Leitzako Kultur Elkartea eta Baztango Jo ala Jo Kultur Taldea.

Orantzaroa ikergai

Altzadi Leitzako Kultur Elkar-teak jasoko dituen 4.000 euroak *Orantzaro*, *Leitzako Olentzero* proiektua finantzatzeko izanen dira. Elkartea gaiari buruzko ikerketa sakona egiten hasi zen duela hamar urte eta horretan dihardu. Bidean, Orantzaroaren inguruko aurkikuntza etnografiko garrantzitsuak egin dituzte: genero ikuspegitik, errituak, esanahiak... eta herritarren testigantzak ere jaso. Horiek guztiak ikus-entzunezko lan batean biltzen hasiak dira. Urte bukaera aldera aurkeztuko dute jendarean.

Baztango dantzetan sakonduz

Jo ala Jo Kultur taldeak, berriz, 5.390 euroko dirulaguntza izanen du *Mutildantza eguna: Piriniotan Dantzan* proiekturako. Baztango folklorean sakontzea da proiektu honen helburua eta 2019an Moneidarrak dantza izanen dute aztergai. Apirilean eta maiatzean hainbat ekintza antolatu dituzte.



Orantzaroari buruzko antzinako irudi eta testigantzak biltzen ari dira ALKEoak.

eta hau ere?

bai

Etxea
Automobil
Istripuak
Bizitza
Ehorzketa

Aseguruen inguruko premiak

dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL
SEGUROS RGA
Professional Cycling Team

**DENA
SEGUROAGOA DA
HURBIL BAZAUDE**

caja.rural@rural Kutxa

RURAL KUTXA
caja.rural@rural Kutxa

Bizitza-aseguru RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595. Ebe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.683 eta DGSFPko gakoak C-616. Automobil aseguruak honako hauekin kontratatzen dira: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467); Reale Seguros (IFK A-78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613); Mapfre España (IFK A-28141905 eta DGSFPko gakoak C-0058). Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculada, S.A. ren bidez merkaturatzen dira (IFK A-79490264). Madrilan du helbidea (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bilaketa-erregistroan inskribatuta dago CV-0006 gisa-arekin, baita Madrilgo Merkataritza Erregistroan ere, 8205. liburuaren, 89. folioan, 8. sekzioan, M10188 orrian. Rural Kutxa RGA Mediación OBSV, S.A. ren bidez sarrak kide da. Helbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru etxerik dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf



Elizondoko ikasleak Baionako Bernat Etxepare lizeoko atarian. UTZITAKO ARGAZKIA

Bigarren urtez Baionako lizeoarekin ikasle-trukea eginez

Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleek Baionan egin zuten egonaldia eta egun batez Baztanen izan ziren Etxeparekoak

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtez, Elizondo Lanbide Eskola ikastetxeko ikasleek Baionako Bernat Etxepare ikastetxearekin trukea egin dute. Aurtengoan, Elizondoko Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako zikloko lehen mailako ikasleak eta Baionako Lanbide Heziketako Administrazio eta kudeaketa Zientzia eta Teknologia azken mailako ikasleak izan dira protagonista. Ikasle-truke hau, Pyrene Proiektuaren (INTERREG- POCTEFA 2014-2020) barnean egin da eta eskolako Kanpo Harremanak sailetik bultzatu dute.

Lehenengo astean, apirilaren 29tik maiatzaren 3ra, ikasleek, *Inguruko enpresa Sarea* aztertu zuten, beraien lanbidearen nondik norakoak enpresetan ikusteko eta gaur egungo eskaera zein den jabetzeko.

Bigarren astean, maiatzaren 6tik 10era bitarte, Baionan egonaldia egin zuten, Bernat Etxepare Lizeoan, hango ikasleekin elkarlanean. Iparraldeko antolaketa instituzionala, Baionako Merkatal Ganbara, bertan azken urteetan garatu

berri diren kooperatiben adibideak, Eusko monetaren inguruan dagoen antolakuntza eta erabileraren ingurukoak, mikrokredituen inguruko egitasmoak, Seaskaren garapenaren azterketa matematikoa, talde dinaminak... burutzeko aukera izan zuten.

Ortziralean, Elizondora bueltan etorri ziren guztiak, eta Baztanen programari segida eman zieten. Aurtengoan, ikasle hauen egonaldia Baztanen laburra izan da, ikasurte bukaeran egin beharreko Baxoa azterketarekin buru belarri zebiltzalako. Halere, Amaiur eta Gaztelua bisitatu, Baztango alkatearen eskutik, bertako egituraren antolaketarek berezia eta Udalak azken urteetan garapen ekonomikoari bultzada emateko landutako lan ildo berriak ezaugu, Cedernak enpresen sustapenean eskaintzen duen laguntzaren eta *Arras Baztan* proiektuaren berri izan, Eskisariroi Jatetxean elkartasun bazkariak gozatu eta *Baztango Xuria* enpresako sustatzailerekin elkartzeko modua izan zuten, dena egun berean.

Kultur hedapenerako laguntza jasoko du 'Idazleekin Solasean' egitasmoak

TTIPI TTAPA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiak kultur hedapenerako proiektuak egiteko laguntzak eman dizkie hamalau kultur elkarte eta entitatari. 24 proposamen aurkeztu dira 140.000 euroko guztizko diru-kopurua duen

IDEIA 2019 deialdirako. Eskualdean, Idazleekin Solasean Elkarateak 1.096,58 euro jasoko ditu.

Nafarroako Ikastolen Elkarateak 7.750 euro edo Nafarroako Bertsozale Elkaratea, 15.120,12 euro jasoko dituzte, bertzeak bertze.



JUAN MARI ONDIKOL

Iruritako Salbatoreekin abiatu dira bestak

Iruritako Salbatoreetako txupinazoak hasiera eman die eskualdeko besta zirimolari. Joxe Mari Zelaieta *Xaldubi* izan zen lehen suziria piztu zuena. Baztango udaleko mantenimendu-lanen koordinatzailea da. Ondotik, Baztango Gaitariak eta Jo ala Jo taldeko erraldoiak dantzatu zituzten.

ANZABAL
inmobiliaria



- **Zurich Aseguruak**
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- **Gestoria**


Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Mi'kmaq herrien buruzagia mintzo Balleko Etxean

Lehen herrien unibertsoa eta euskaldunekiko harremanak azalduko ditu ekainaren 18an, 19:30ean Balleko Etxean

TTIPI-TTAPA

Keptin Stephen Augustine mi'kmaq buruzagi tradizio-nalak *Lehen herrien unibertsoa: Euskaldunekiko harremanak* mintzaldia eskainiko du Balleko Etxeko batzar gelan ekainaren 18an, asteartean 19:30ean. Jauzarrea elkarteak antolatu du mintzaldia, Baztango Udalaren laguntzarekin eta ingelesetik euskarara aldi bereko itzulpena izanen dute.



Keptin Stephen Augustine buruzagia.

Buruzagi ezaguna

Keptin Stephen Augustine xamana da eta, honetaz gainera, Kanada eta Ipar Ameriketako Estatu Batuetako Mi'kmaq Kontseilu Nagusiko Oinordetzako Buruzagi Tradizionala, CBU Cape Bretoneko Unibertsitateko errektoreordea, Unama'ki College, CBUko ikerketa Indigenen Zentroko zuzendaria UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea), ONU (Nazio Batuen Erakundea) eta Kanadako Lehen Nazioen Gorte Gorenean ordezkaria, Egiaren eta Adis-kidetzearen Batzordeko par-

taidea, Kanadako Artxibo Nazionala eta aholkularia eta hamazazpi urtetan barrena Kanadako Museo Nazionalean Amerindiar Bildumen kontserbatzailea. 2011z geroztik, euskal jakintza aztertu eta zabaltzeko bidea egin nahi duen Jaurezarrea elkarteak mundu mailan duen ikertzaileen sareko partaidea ere bada.

KEPTIN STEPHEN AUGUSTINE BURUZAGIA IZANEN DA HIZLARI



Hoberena abesbatzakoek sorpresa eman zioten Maruja Cirizari. UTZITAKOA

Hilabete kulturala ospatzen ari dira Elizondoko Zahar Etxean

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean hilabete kulturala ospatzen ari da. Maiatzaren 31n, Fabre Fundazioak eskainitako hitzaldia-rekin abiatu zen, ekainaren 2an Elizondoko abesbatzak kontzertua eskaini zuen kaperan eta 3an Baztango dantzariak emanaldia patioan.

Aitzinetik iragarritako ekitaldiekin batera, sorpresa ere izan zuten ekainaren 2an: Iruñeko Hoberena abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Izan ere, Elizondoko zahar etxean bizi den Maruja Ciriza abesbatzako kide izan da betidanik eta bere lagunek sorpresa hunkigarria eta detaile paregabea eman nahi izan zioten.

Aste honetan, ekainaren 11n, Baztango Musika Eskolakoek kontzertua eskaintzekoa zuten patioan.


Ekainaren 13an, ortzegunean 10:30ean, Baztan Ikastolako gaztetxoek emanaldia eskainiko dute patioan.

Ekainaren 19an, asteazkenean 17:15ean, Rebeca dantza akademiako ikasleek eskainiko dute emanaldia patioan.

Ekainaren 20an, ortzegunean 12:00etan, Elizondotik barna irteera egingen dute erizaindegikoekin eta eguerdian, aperitiboa eskainiko dute patioan.

Kanpaldia eta Familien Eguna

Hilabete Kulturala borobiltzeko, belaunaldien arteko kanpaldia egingen dute ekainaren 26tik 28ra, adineko eta gazte-toendako ekintzekin eta ekainaren 29an, Familien Eguna ospatuko dute, egoiliar, familia, langile eta boluntarioen besta. 10:30ean meza izanen dute eta 11:30ean aperitiboa patioan.



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Yorrík Troman, Amaia Cordoba eta Ion Irazoki musikariak. UTZITAKO ARGAZKIA

Ganbera kontzertua larunbatean emanen dute Arizkunenean

Amaia Cordoba Erratzuko pianojolearen, Ion Irazoki Berako txistulariaren eta Yorrík Troman bibolin-jolearen eskutik

TTIPI-TTAPA

Amaia Cordoba piano-jole erratzuarrak, Ion Irazoki txistulari beratarak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoan kontzertinoa den Yorrík Troman bibolin-jotzaileak ganbara kontzertua eskainiko dute ekainaren 15ean, larunbatean 20:00etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

Gehien bat euskal errepertorioa eskainiko dute, baina emanaldia hasteko, Wolfgang Amadeus Mozarten *La flauta mágica*, K.620. *Obertura*, eta *Sinfonía nº35 en re mayor*, K.385, "Haffner" joko dute;

ondotik, *Minemartin's march* (Eduardo Moreno), *Fantasia sobre Rigodones e Julián* eta *Romano* (Iñaki Urkizu), *Hego Arabako dantzak* (Juan Manuel Sáez) eta *Maite, Jota con variaciones* (Juan Carlos Gomez) joko dituzte.

Larunbat arrats goxo bat pasatzeko aukera izanen da.

**EUSKAL
ERREPERTORIAO
ESKAINIKO DUTE
20:00ETAN HASITA**

'Poltsa Ibiltaria' kanpaina abiatu du Bertan Baztan elkarteak

TTIPI-TTAPA

Bertan Baztan elkarteak *Poltsa Ibiltaria* ekimenaren aurkezpena egin zuen ekainaren 16an Arizkunenean. Bertan Baztan elkarteak sustatu du ekimena, Europar Batasunaren FEADER/LGENF funtsen eta Nafarroako Gobernuaren finantzazioa-

ri esker. Proiektu honek 2014-2020 Landa Garapenaren programatik, aipatutako diru iturri horietatik dirulaguntza jaso du.

Bertan elkarteak, baztandar guziekin batera, jasangarritasunaren bidean, plastikozko poltsak ez erabiltzeko modua



UTZITAKO ARGAZKIA

Arghar Farhadi zinegilea Lekarozen

Asghar Farhadik, *Todos lo saben* eta *Una separación* filmeen zuzendari eta bi Oscar sariren irabazlea den irandarrak, zine-tailerra eskaini du Lekarozko kanpusean. Estudios Melitón taldearen eskutik, maiatzaren 30etik ekainaren 8ra Baztanen izan da eta 40 ikasle izan ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko Lanbide Eskolak saria

Elizondoko Lanbide Eskolako Turismo Ostatuaren Kudeaketa zikloko Goi Graduko eta Ostatueta eta Garbitegiko Laguntzaile zikloko Lanbide Heziketa Bereziko ikasleek landutako *Ekitaldidun egonaldia: Harrikulunka hotela* proiektuak saria jaso du Metodologia Aktiboen Jardunaldian.



Poltsa Ibiltaria sustatuko dute.

da Poltsa Ibiltaria. «Bertze behin, gure ingurua errespetuz zaintzeko konpromisoa erakutsiz, ekimen berri honen arrakasta zihurtzat jotzen dugu», aipatu zuten aurkezpen ekitaldian Bertan elkarteak kideek.

Ekainean, dendetan beraien poltsa edo Poltsa Ibiltaria erabiltzen duten bezeroak, ingurumena zaintzeaz gain, 20 euroko bale baten zozketan parte hartzen ari dira astero.

Almandozko bestak ekainaren 19tik 23ra ospatuko dituzte

Pilota partidak eta patata tortilla lehiaketa izanen dira Bestaberri egun handian

TTIPI-TTAPA

Bestaberri egunaren inguruan besta egitaraua zabaldu dute aurten ere Almandozen. Egun handian, mezaz gain, pilota partidak eta patata tortilla lehiaketa izanen dituzte eta larunbatean, mus txapelketako finalak, zikiro-jatea, mariatxiak eta gazte afaria. Hondar egunean, herri-kirolak eta zozketak izanen dituzte, bestak borobiltzeko.

ASTEAZKENA, EKAINAK 19 BEZPERA

20:00etan txupinazoa. 20:30ean kalejira Amaia, Alazne eta buruhandiek alaitua. 21:00etan Baztan Zopak, Joxe Angelek alaituak.

ORTZEGUNA, EKAINAK 20 BESTABERRI EGUNA

08:00etan Aurora parroko abesbatzarekin eta Bixente akordeoilariarekin. 12:00etan Meza Nagusia eta prozesioa. 13:00etan luntxa herriko frontoian. 17:00etan pilota partidak herriko gazteen artean. 20:30ean patata tortilla lehiaketa. 21:00etan afaria. 00:00etan DJ Tintto.

ORTZIRALEA, EKAINAK 21 HAURREN EGUNA

10:30ean haurrentzan ginkana. 12:00etan Berto magoa. 16:00etan hasita, haurrendakozko puzgarriak arratsalde osoan. 17:30ean mus txapelketa. 18:00etan haurrendakozko txokolata beroa. 21:30ean herri-afaria. 00:30ean dantzaldia Oharkabe taldearekin. 06:00etan xingar jatea gau-txorientzat.

LARUNBATA, EKAINAK 22

11:00etan mus txapelketako finalerdiak eta finala. 13:00etan mus txapelketako sarien banaketa. 14:00etan zikiro-jatea. 1:30ean Los Tajudos del Norte mariatxiak. 20:00etan dantzaldia Agerralderekin. 21:00etan herriko gazteen afaria. 00:00etan dantzaldia Agerralderekin. 06:00etan gosaria gautxorientzat.

IGANDEA, EKAINAK 23

12:00etan meza nagusia. 17:00etan herri-kirolak. 20:00etan sarien zozketa. 21:00etan herri-kiroletako partaideen afaria. 22:00etan Gaixoa ni.



Erreginak eta saratsak, Arraiozen. NEREA MORTALENA

Erreginak eta saratsak ospatu dituzte Arraiozen maiatzeko azken igandean

NEREA MORTALENA ARRAIOZ

Maiatzeko azken igandean Arraiozen erregina eta saratsak ospatzen da. Besta honek zeri-kusi haundia dauka hilabete honekin. Protagonistak neskak dira: erreginak, eta hauekin batera, abeslari neska talde bat joaten da; saratsak. Maiatzeko azken igandean ospatu zuten.

Arraiozko historian erreparatzen badugu, erreginak zortzi eta bederatzi urteko neskak ziren eta normalki, Arraiozko bi auzoetatik, neska bat hautatzen zen, bata goitiko auzokoa Urrutiakoa eta bertzea behekoa, Mardeakoa. Saratsak berriz, hamabi edo hamalau urtekoak ziren. Emakumearen emankortasun besta honetarako, herriko neskak biltzen ziren, meza edo arrosarioaren ondotik eta erreginak jantzen zituzten. Erreginak zuriz jantzen ziren, eta buruan apaingarri moduan, neskak mendian hartutako saratsen adarrekin

egindako koroa eta lorez apainduta paratzen ziren. Erreginek poltsa zuri batzuk eramaten zituzten dirua biltzeko eta poltsa hauek gerriko moduko kolorezko zinta zabal baten azpian gordetzen zituzten. Saratsak, berriz, normalki, etxean zeukatzen arroparik onenarekin jantzen ziren eta bertze neskatikoa bereizteko, sorbaldan kolorezko zintak paratzen zituzten.

Gaur egun saratsak baserri-jantzia erabiltzen dute eta horrekin batera blusa edo niki zuria; eta tradizioak dioen bezala zinta urdina ere paratzen dute. Erreginek, berriz, soineko eta blusa zuria, zinta urdina eta lorez egindako koroa paratzen dute buruan.

Eider Urrutia eta Ane Iturralde izan dira erreginak, eta saratsak, Naroa eta Olaia Gamio, Izaro Launagarai, Aisha Zubieta, Aiora Arraztoa, Uxue Viela, Olatz Bergara, Nahia Lazkano eta Alaitz Urrutia.



Bortz herritako soinulariak, 1974ko bestetan. UTZITAKO ARGAZKIA.

Lau arraioztarrek parte hartu zuten Irurritako Mendi Dualoian

NEREA MORTALENA

Lau arraioztarrek parte hartu zuten maiatzaren 25eko Irurritako II. Mendi Dualoian. Laisterka Aritz Alunda eta Iñaki Mihura aritu ziren eta

bizikletan aldiz, Oskitz Karrikaburu eta Abi Bengoetxea. Iñaki Mihurak eta Abi Bengoetxeak lasterketako hirugarrenak izatea lortu zuten mutiletan, bikote moduan.



Balerdi Balerdi taldeak ekainaren 21ean joko du Lesakan eta Izaki Gardenak taldeak hilaren 27an Beran. UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekitaldiz gainezka dator aurten ere 'Kultur' egitaraua

Hilaren 21ean Lesakako plazan joko du Balerdi Balerdi taldeak eta 27an Berako Herriko Etxeko Plazan Izaki Gardenak taldeak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak antolatutako Kultur 2019 programaren hogeita laugarren edizioaren baitan, ekainaren 21etik irailaren 7ra musika, dantza eta arteko 36 emanaldi prestatu dituzte. Ortzegun, ortzirale eta larunbat guztietan egingen dira Nafarroako 35 udalerri eta pasaia-edo ondare-mailako toki interesgarritan. Eskualdean, Lesaka, Bera, Zugarramurdi, Elizondo, Donamaria eta Bertiz ukituko ditu.

Eskualdeko programazioa

Ekainaren 21ean, ortziralean, 20:30ean, Lesakako plazan joko du Balerdi Balerdi musika taldeak. *Galtzen ikasteko metodoa* Balerdi Balerdi taldearen azken diskoaren izenburua da. Nafarroako talde beteranoak hamalau abesti aurkeztu ditu disko horretan eta, heriotza, ametsak, frustrazioak edo antzeko gaiak landu ditu ironiaz.

Taldeak hainbat estilo erabiltzen ditu, hala nola, pop-rocka, rock'n'roll klasikoa,

pop indartsu eta lasaia eta folk-rocka.

Ekainaren 27an, ortzegunean 20:30ean, Izaki Gardenak taldeak kontzertua eskainiko du Berako Herriko Etxeko Plazan.

Izaki Gardenak 2012an sortu zen Jon Basagurenek konposatutako abesti batzuei forma emateko. Urte bereko irailean abesti horietako bost grabatu zituzten Iñaki Llenaren estudioan. Grabazio haiek Oihuka/Elkarrek argitaratutako *Itsasargiak* izeneko EPan azaldu ziren. 2013ko udan, Donostiako Elkar estudioan sartu ziren *Amaieratik hasi* taldearen lehen diskoa grabatzeko Víctor Sánchezekin. Taldea Euskal Herrian gehiago ezagutzeko balio izan zuen diskak. 2015eko udazkenean *Aurri gara* kaleratu zuten, aurrekoa bezala Elkarren graba-

'DANTZA' FILMAKO ARGAZKIEKIN ERAKUSKETA BERTIZEN

tutakoa Víctor Sánchezekin. Lan horrek kritika onak jaso zituen eta amerikar/folk estiloko estatuko disko onena aukeratu zuen *Mondo Sonoro* aldizkariak. Bira luze baten ondotik, 2017ko martxoan atseden hartzea erabaki zuten. 2019an, *Dena osko* kaleratu dute eta agertokietara itzuli dira.

Uztailaren 1 In, ortzegunean, 18:00etan, Hutsun txalaparta taldeak emanaldia eskainiko du 18:00etan Zugarramurdiko lezean.

Abuztuaren 1ean, ortzegunean, 20:30ean, La Dinamo musika taldeak emanaldia eskainiko du Elizondoko Foruen Plazan. La Dinamo funk dinamikoa da, musika bizikletaren gainean.

Abuztuaren 22an, ortzegunean 20:00etan, Javier López Jaso-Marcelo Escrichlaukoteak *Aporía* emanaldia eskainiko du Domanariako Jauregian.

Argazki erakusketa Bertizen

Era berean, *Kameren aurrean dantzari*; *Dantza filmeko argazki sorta bat* erakusketa zabalduko du Xabier Artola Zubillaga donostiarrek Bertizko jauregian uztailaren 4tik abuztuaren 25era. Egunero zabalik izanen da, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Erakusketa doakoa da, baina ordaindu egin behar da lorategi historikora sartzeko. Telmo Esnalek zuzendutako *Dantza* filmaren filmatze saioetako argazkiekin osatu du erakusketa hau.

Dirulaguntzak herritik kanpoko ikasleak dituzten ikastetxeei

TTIPI-TTAPA

Jarduneko Nafarroako Gobernuak maiatzaren 29ko bilkuran akordio bat onetsi zuen, zeinaren bidez, eskola kontzentrazioak mantentzeko tokiko 36 entitateri 964.425 euroko dirulaguntzak emanen zaizkien. Ikastetxe horiek beste herrietako, Haur eta Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta DBH 1. eta 2. mailako 3.068 ikasle jasotzen dituzte guztira. Tartean daude Elizondo, Doneztebe, Goizueta, eta Leitzako eskolak. Herritik kanpoko 184 ikasle hartzen dituzte lau eskola horietan.

Nahiz eta toki-administrazioei dagokien ikasle horiek eskolatzeko erabiltzen diren eraikinak mantentzea, Hezkuntza Departamentuak uste du horrek dakartzan mantentze-kostuak itzuli egin behar zaizkiela udal horiei, baldin eta beste udalerri batzuetako ikasleak jasotzen badituzte beren eskoletan eta ikasleak Nafarroako Gobernuaren xedapen edo erabaki bidez eskolatu badira eskola horietan, eskola-mapari jarraikiz.

Honela, Baztango Udalak 11.499 euroko laguntza jasoko du, Elizondoko eskolak hartzen dituen Elizondotik kanpoko 37 ikasleengatik; Doneztebe Udalak 39.293 euro jasoko ditu Doneztebetik kanpoko 125 ikasleengatik, Goizuetako Udalak 4.715 euro eskuratuko ditu Aranoko 15 ikasleengatik eta Leitzako Udalak 2.200 euro, Leitzatik kanpoko 7 ikasleengatik.



Goizuetako ikasleak.

Gaurik laburrena ospatuko dute hilaren 22an lezean

Zinema, musika eta astronomia uztartzen dituen ibilaldi sinfonikoa izanen dute 20:00etan hasita

MARIFA ETA KORO

Navarra Film Commission elkartearen X. urteurrenaren harira, Zugarramurdiko lezean Gaurik laburrena ospakizuna antolatu dute. Ekainaren 22an, larunbatean, 20:00etan zehaztu dute hitzordua. Bertaratzen diren ikusleek zinema, musi-

ka eta astronomia uztartzen dituen ibilaldi sinfonikoaz gozatzeko aukera izanen dute. Star Wars Suite taldearen doinuak eta Javier Armentiaeren testuak izanen dituzte entzungai. Informazio gehiagorako edo sarrerak eskuratzeko www.turismozugarramurdi.com.



UTZITAKO ARGAZKIA

Magia eta musika maiatz hondarrean

Maiatzaren 25ean, hondarreko larunbatean, magia eta musika uztartzen dituen ikusgarria eskaini zuten museoko auditorioan. Harremana jubiloteka elkarteak antolatutako ekitaldi horretan, ikusleek, emanaldi ederraz gozatzearekin batera, dantzarako tarte ere izan zuten.

Gazteak prekaritatearen kontra ortziraletan Dantxarineko bentetan

Euskal Herrian Bizi dinamikaren baitan martxa prekarioa antolatu dute Baztan-Bidasoa eta Xaretako gazteek ekainaren 14an Dantxarineara. Ernaik eta Aitzinak elkarlanean antolaturiko ekimena izanen da. Ortziralean 17:00etan kotxe-karabana egingen dute Ainhoatik abiatuta eta 18:00etan, berriz, kalejira aldarrikatzailea egingen dute Dantxarineako bentetan barrena. Martxaren helburua bentetan gazteek pairatzen dituzten lan baldintza kaxkarrak salatzea izanen da.



Elizako gurutzea San Migeli ongi etorria egiten, elizako atean. UTZITAKOA

Isidro eta Migel santuen bestak ospatu dituzte berriki

MARIFA ETA KORO

Euskaldunen artean fede haundiena sortzen duten bi saindu ditugu San Isidro eta San Migel. Lehenbizikoa nekazarien laguntzailea baita, eta bigarrena, Aralarko sailindutegitik atera eta urtero herrietako lurak bedeinkatzen ibiltzen dena. Bien bestak ospatu di-

tugu berriki. San Isidro egunean Alkerdiko kaperan elkar-tu ziren Urdazubi eta Zugarramurdikoak, eta gero Azketan egin zuten bazkaria. San Migelen bisita berriz, ekainaren 1ean izan genuen. Gaur egun ez da Bixkarreko kaskor- rat prozesiorik egiten baina bedeinkazioak zabaltzen ditu.

Parapentean ibiltzeko aukera izanen da herrian

MARIFA ETA KORO

Azkeneko hilabete hauetan franko usaiako egiten ari zaigu Atxuria inguruan parapenteak ikustea, eta hemendik aitzina oraindik maizago ikusiko ditugu segur aski. Izan ere, Irungo Centro de vuelo Bidasoak antolatzen dituen

parapente ikastaroko praktikak mendi honetan egingen dituztela jakinarazi dute.

Horretaz gain, edozeinek izanen du parapentean ibiltzeko aukera. Interesatuak Graxiana aterpetxera jo eta bertan eman beharko dute izena.

BEROPEL
egurrezko pellets
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com



Leire Larrasa arduraduna, Laura Porcu giza-harremaneko langilea eta Martine Arhancet giza harremanen hautetsia.

Guraso eta haurren arteko harremanak errazteko gunea

Herriaren beharrak bete nahi dituzte Herriko Etxeko Gazte eta Haurren Zerbitzuak ireki duen Elea gunean

PIERRE BASTRES

Senpereko jendetza handitzen ari den heinean (% 13,7 igo da bizilagun kopurua, 2010 eta 2015 urteen artean), behar eta nekezi berri zonbait ere agertzen zaizkigu eta halaber auzo herrietan. Izan ere, gizartea geroz eta handizkiago aldatzen ari da, familia harremanak barne. Egoera honi egokitze-ko nahian, abar berezi bat ireki du Herriko Etxeko Gazte eta Haurren Zerbitzuak: "Elea". Leire Larrasa arduradunak lehenik zehaztu duenez, «guraso eta haurren arteko harremanen erraztea da helburua.

Batzuetan, elgar-aditze ezin bat gerta daiteke familia batean, eta nola atera jakin gabe dabilta gurasoak. Hortan direnak laguntzen ahal ditugu. Astean behin bulegoa irekitzen dugu Oiartzun etxean. Familiak errezebitzen dituzte giza-harremaneko bi langilek, izan dadin gurasoak aditzeko, harremanak garatzeko haurra eta gurasoen artean, aktibitateak eginez, edo bakarrik barkatasuna hausteko». Leirek garbiki azpimarratu du: «Edozein familia edo gurasori gertatzen ahal zaio: nekezian denari edo ez, diru gutti edo

aintzekoari. Norberak beharrezko laguntza aurkitzen ahalko du hemen». Lan hau elkarlan batetik sortu da, administrazioarekin hain zuzen. Larrasaren erranetan, «lau urtetarik behin hitzarmena izenpetzen dugu CAFekin (Familiendako Laguntzen Kuxa). Bertako familien beharrak behar ditugu neurtu beti eta behar berriak bazirela ohartu gara. Orduan CAFek erran digu bertze lekuetan *Elea* bezalako egiturak sortua zituztela, eta emaitza onekin».

«Maiatzean hasi gara –dio Larrasak–, eta aste batetik bertzerat 4-6 familia etorri zaizkigu. Behar handiak badirela agerian uzten du horrek». Ezinbertzez, auzo herrietan ere behar berak izaki, holako muntadurak hedatu nahi litzukete, Sararat eta Ainhoarat hain zuzen: «Hurbiltasuna ezinbertzekoa da jendeak laguntzeko ahal bezain ongi: eta horretarako, haienganat gan behar dugu!».

Azokak, kontzertuak, ospakizunak eta gehiago Saran

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz ongi hornitua doa ereiarioa eta hemendik aitzinerako asteak ere halaxe izanen dira. Ortzegunero ekoizleen merkatua egiten segituko dute frontoian, 08:00etatik 13:00etara. Ortzirale honetan, berriz, ereiarioak 14, Lanetik egina elkarteko ikasleek musika kontzertua eskainiko dute Lur Berri gelan, 19:00etan.

Larunbatean, alde batetik, Beti Gazte elkarteak uda aitzineko bazkaria antolatu du, 12:30ean Pleka trinketean, eta erretretatu guztiei egin diete joateko gomita. Bertzetik, egun berean, Artilearen Eguna ospatuko dute. 09:00etatik aitzinera frontoian azoka eta tailerrak izanen dira. Asteburua borobiltzeko, Har Hitzza Elkar- teak antolatuta, Sara Oinez mendi ibilaldia egingen dute igandean, 25 kilometroko itzulia. Izena 06:30etik aitzinera eman beharko da kiroldegian eta mendizaleak 07:00etatik 08:00etara abiatuko dira.

Heldu den astean gehiago

Ereiarioaren 20an, Erlauntza abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan, 21:00etan hasita eta biharamunean, hilak 21, eskola publikoaren besta egingen dute. 18:00etatik aitzinera ikasleek ikusgarria eskainiko dute kiroldegian eta jatekoa eta edatekoa ere izanen da. Eskubaloia maite dutenek, berriz, larunbatean, hilak 22, dute hitzordua, Urtxintxak elkarteak norgehiagoka antolatu baitu kiroldegian 09:00etan. Jatekoa eta edatekoa ere eskainiko dute.

Ereiarioaren 26an Mendi Xola abesbatza elizan ariko da kantari, 21:00etan, eta hilabeteko azken larunbatean, ereiarioak 29, St Joseph ikastetxoek besta izanen dute.

BERA (administraritza) 31780 Bera	DANTXARINEA 31712 Urdax
IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Irun
LUZAIDE 31660 Luzaide	

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



60 bat lagun etorri ziren bisitan. MAITE

Hirugarren urtez Longeville sur Mer eta Oberhergheimekoekin trukea

GANEX

Duela bi urte saratarrak izan ziren Longeville sur Merren izan zirenak eta 2018an gauza bera egin zuten Oberhergheimera joanez. Aurtun, maiatzaren 30etik ereiarioaren 2ra saratarrak izan ziren bi herrietakoak errezibitu zituztenak.

60 bat lagun etorri ziren bisitan. Maiatzaren 30ean ailegatu ziren eta bi egunez herriko eta inguruko hainbat txoko bisitatu zituzten. Maiatzaren 31n, ortziralean, herriko plaza eta Suhalmendiko txerri parkea bisitatu zituzten. Lur Berrin bazkaldu ondotik, arratsaldean

Larun gainera joan ziren eta ondotik, Zazpiak Bat dantza taldearen ikusgarriaz gozatze-ko aukera izan zuten. Eguna borobiltzeko taloak ere jan zituzten eta Saiberri taldearen emanaldia ikusi zuten.

Larunbat goizean Ainhoan eta Ezpeletan izan ziren eta eguerdian Lur Berrira bildu ziren bazkaltzeko. Arratsaldean leizeak bisitatu eta pilota partidak ikusi zituzten, eta gauez, Lur Berrin elkartu ziren afaltzeko, Sarako kantariekin alaituta. Aipatzekoa da, guztira 30 bat herritar ibili direla egonaldia honetan laguntzen.



USOPOP

Usopopen 'pausa'

Eguraldi txarrari aitzin eginez, maiatz hondarrean Lizarietan ospatu zuten 10. Usopop festibala. Gisa honetara, Usopopek «pausa bat» hartuko duela erran dute antolatzaileek, «hamar urte luze baitira pasioz, gogoetaz eta insomnioz beteriko boluntarioen bizian». Halere, «Usopop ez da desagertuko».

«Festibala hastapenetik identifikatzen nauen eredua izan da»

LEIRE FAGOAGA EHZ EGITASMOKO BOLUNTARIOA

Ekainaren 28tik 30era Irisarrin ospatuko den Euskal Herria Zuzenean (EHZ) festibala antolatzen aritu da Leire Fagoaga. Maite du antolakuntzaren giblean dagoen «auzolan eta besta eredua». Biak uztartzeko proposamena luzatu die herritarrei: «bat egingure proiektuarekin eta izan boluntario!»

Zer da EHZ?


Izaera bikoitzeko elkarte da. Ipar Euskal Herriko tresna da, gazte mugimendua indartzeko dinanika bat, besta eta engaiamendua elkartzen dituen. Horrez gain, norbanakoak nahiz kolektiboak elkartu eta gogoeta propioak eramateko gaitasuna dauka.

Noiztik ospatzen da?

1996an ospatu zen lehen aldiz Arrosan (Baxe Nafarroa). Euskal Herriko festibal zaharrenetakoa da. Idauze-Mendi (Zuberoa), Heleta (BN) eta Lekorneko (Lapurdi) zole-tatik igaro ondoren, 2017-2018 artean, proiektua birdefinitzeko barne-gogoetan murgildu ginen. Urte horretan, EHZ Nomada ospatu genuen, festibala hiru egunez hiru herritara zabalduz. Aurtun festibala hats berriz itzuli da, gazte belaunaldi berrien eskutik, eta Irisarrin izanen du berrabiatze.

Noiztik ari zara antolakuntzan?

Bada urte zombait ari naitela... Hastapenetik Festibalean den auzolana, eta herrialde ezberdinetako gazteen ezagutzaren egiteak ninduen harrapa-



tu. Festibala identifikatzen nauen eredua izan da. Aurtun ardura gehiago hartu ditut 15 laguneko talde motorrean ari naiz.

Noiz hasi ohi zarete lanean?

Aurtengoa berezia izan da, proiektua berrikusi dugu. Usaian, iraileko biltzarretik landa...

Nola banatzen duzue lana?

Lana komisioka banatzen dugu (urtean zehar 10 lagun biltzen dira bakoitzean), ardura ezberdinak hartuz. Aurtun, erraterako, nire ardura diruarena da, baita administrazioarena ere. Eta nola ez, festibalaren denboran, ehunka laguntzaile dira posible egiten dutenak. EHZ Festibala auzolanez antolatu den festibala dugu, eta horretarako baitezpada-koa da. Aurtun 500 behar ditugu.

Feminismoa, besta-eredua, burujabetza... dira aurtengo ildoak. Nola jorratuko dira?

Horien bueltan antolatu-ko ditugu hainbat tailer, hitzaldi eta mahai-inguru. Jendeari eskatuko diogu ildo bat hauta dezan, eta ildo horretan sakontzeko aukera izanen du.



Iruritako II. Mendi Duatloiko podiumak: mutilak binaka, binaka mistoa, mutilak bakarka eta neskak binaka. UTZITAKO ARGAZKIAK

206 kirolarik akitu dute Iruritako II. Mendi Duatloia

Bakarka Ander Lazkano nagusitu zen eta binaka, gizonezkoetan Narbarteko Joseba Elizagoien eta Jokin Arretxea eta emakumezkoetan Elizondoko Itziar Etxeberria eta Lekarozko Josune Berho

TTIPI-TTAPA IRURITA

206 kirolarik parte hartu zuten maiatzaren 25ean Iruritako Mendi Duatloiaaren bigarren edizioan. Aurten ere eguraldi kaskarrari aurre egin behar izan zioten, baina ez iaz bezainbertze. 10,5 kilometro lasterka (450 metroko desnibelarekin) eta mendi bizikletan 20 kilometro (850 metroko desnibelarekin) egin zituzten. Sailkapenei dagokienez, ibilbide osoa bakarka egin

zuten lagunen artean, Ander Lazkano andoaindarrak nagusitu zen (2.01.46), Asier Apeztexea aranztarraren (2.02.10) eta Villabonako Xabier Astigarragaren aitzinetik. Emakume bakarrak egin zuen ibilbide osoa, Dimako Arantza Artetxe bizkaitarrak (3.08.47).

Ibilbidea binaka eta txandaka egin zutenen artean, berriz, gizonezkoetan, Narbarteko Joseba Elizagoien eta Jokin Arretxea izan ziren bizkorrenak

(1.58.15). Bigarren postua Ander De Luis eta Imanol Troyak eskuratu zuten, 36 segundora (1.58.51) izan zen eta hirugarren postua Iñaki Mihura arraioztarrak (bizkorrena izan zen lasterka egin beharreko zatian) eta Xabier Bengoetxeak (2.01.32).

Emakumezkoetan, berriz, iaz bezala Elizondoko Itziar Etxeberria eta Lekarozko Josune Berho izan ziren garaile (2.41.35); Zubietako Mikele

Etxeolonea eta Berroetako Sarai Maritorea bigarren (3.17.10).

Bikote mistoei dagokienez, iaz bigarren izan ziren Garazi Artola eta Aritz Pagola usurbildarrak nagusitu ziren (2.12.47), bigarren Maider Irazoki doneztebarra eta Xabier Arrillaga elizondarra (2.25.40) izan ziren eta hirugarren Ainhoa Retegi beratarra eta Imanol Retegi igantziarra (2.29.00).

Lasterka bizkorrena izan ziren Iñaki Mihura eta Garazi Artolak ere sariak jaso zituzten, baita bizikletan bizkorrenak izan ziren Gaizka Otxandorenak eta Josune Berhok ere. Antolatzaileek oroigarria eman zioten Gartzaingo herriari ere, antolaketan eskainitako laguntzagatik.

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa Maratoi Erdi bilakatuko da aurten

TTIPI-TTAPA URDAZUBI

Normalki Urdazubiko Salbatore besten aitzineko igandean egiten zen Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketak aldatetako izanen ditu aurten. Hasteko data aldatuko dute eta urriaren 20an egingen dute, igandean 10:00etan abiatuta. Ez da aldaketa bakarra izanen: 16 kilometro eskas izatetik,

maratoi erdia izatera pasako da. 21,47 kilometro luze eta 1.200 metroko desnibela duen ibilbidea prestatu dute Urdazubiko Gazteriak eta Urdazubiko Udalak.

Bezperan gaueko lanak

Hain ibilbide luzea egin nahi ez dutenek eta gauez lasterka ibiltzea nahiago dutenek ere



Kontrabandisten lasterketako irteera.

izanen dute aukera. Bezperan, urriaren 19an, *Gaueko lanak* izeneko lasterketa antolatu dute. Larunbatean 19:45ean abiatuta, 9 kilometro eta erdi luze eta 500 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute korrikalariek.

Izena emateko aukera laister irekiko dutela jakinarazi dute, <https://play.sport-madness.com> webgunean. Informazio gehiago ere eska daiteke, arantxa@sport-madness.es helbidera idatziz.



Didier Zago eta Adèle Kerbaol, erresumako lehen errege-erreginak. UTZITAKOA

Presoen eskubiden alde lehen proba egin dute Lizarietan

Didier Zago eta Adèle Kerbaol nagusitu ziren maiatzaren 26ko txirrindularitza proban eta Otsondon izanen da hurrengoa

TTIPI-TTAPA

Nafar Erresumako kronoeskalada txapelketa antolatu du KronoEskaladak elkarteak, presoen eskubideen alde. Maiatzeko azken asteburuan

hasita, Ipar Euskal Herriaren eta Nafarroaren arteko portuetan sei proba egingen dituzte urrira bitarte eta horietako batzuk TTIPI-TTAPAREN eremuan jokatu dira. Lehenbizikoa

Saran izan zen maiatzaren 26an, Usopop jaialdiko egitarauaren barne. Lizarrietako portua izan zuen bizikleta probak helmuga.

38 txirrindulari

38 lagunetik, bortz emakume ziren. Adin tartearen hamar urtetik hasi eta 78 urte arte izan zen. Jendea Nafarroatik, Gipuzkoatik, Lapurditik eta Euskal Herri kanpotik ere hurbildu zen. Eta denboren arabera, Didier Zago, Bearnoko Feas (Barétous) herriko btt eta trail txapelduna, izan zen Lizarrietako KronoEskaladaren garai-le, alegia Eneko Aritza, Nafarroako lehen erregea izendatua izan zen, 14 minutu eta 39 segundo eginez. Izugarrizko denbora lortu zuen.

Bertzetik, Adèle Kerbaol, Miarritzeko triatleta, Toda Aznarez Nafarroko erregina izendatua izan zen Lizarrietako lepora 19 minutu eta 19 segundotan ailegatuta.

Amets Soubeletek sari berezia jaso zuen, 10 urterekin, aitaren ondoan igo baitzuen lepoa. Barthélemy Fuma (espoir saria) eta Mathieu Garate (Gazte saria) izan ziren.

Hurrengo hitzordua hilaren 23an izanen dute Otsondon.

Doneztebeko XLI. Herri Krosa ekainaren 16an egingen dute

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Erreka elkarteak antolatutako Doneztebeko 41. Herri Krosa ekainaren 16an egingen dute. Izen-ematea bortz euro ordaindu beharko dute jubenilek eta hortik aitzinerako kategoriek. Gazteagoenat debalde izanen da. Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30etik aitzinera aterako dira. Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beterranoak, berriz, 11:30ean.

Distantziei dagokienez hauek izanen dira: maila berezia: 75 metro; aurre-benjaminak: 420 m; benjaminak: 420 m; alebin neskak: 800 m; alebin mutilak: 1.180 m; infantil neskak: 1.180 m; infantil mutilak: 1.560 m; kadete neskak: 1.825 m; kadete mutilak: 3.650 m. Hortik aitzineko neskek 3.650 m eta mutilek 7.300 m.

Sailkapen orokorrean, gizon nahiz emakume irabazleak 150 euro jasoko ditu; bigarrenak 90 euro; hirugarrenak 60 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazte txapeldun 4x4 mistoan ere

Nafarroako lauko sokatira txapelketako txapel guztiak irabazi ditu Lesakako Beti Gazte taldeak. Azkenekoa, txapelketa mistoa: Beñardo Iantzi, Amaia Leiza, Arritxu Muxika eta Gerardo Telletxeak osatutako laukotea nagusitu zen eta hirugarren izan zen Beti Gazteren bertze taldea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Futbol Taldeko kadeteek igoera

Baztan Futbol Taldeko kadeteek lehen mailara igotzea lortu dute, Mendillorri eta Atarrabia taldeen kontra bi kanporaketa gaudituz eta gero. Bietan Giltxaurdin jokatuak partidetan berdindu ondoren, etxetik kanpo lortu zuten irabaztea eta kanporaketa gauditzea. Argazkian, Atarrabian ageri dira.

HITZALDIAK

GOIZUETA

Goizukoopen urteko batzarra

Jangelan, ekainaren 15ean,
11:00etan.

ELIZONDO

'Lehen herrien unibertsoa. Euskaldunekiko harremanak'

Udaletxean, ekainaren 18an,
19:30ean.

LEITZA

'Herri baratzeak, herri ondarea'

Karrapetik abiatuta, ekainaren
21ean, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

Dantza-emanaldia

Ekainaren 15ean.

DONEZTEBE

Firin Farandula taldea

Zineman, ekainaren 21ean,
18:30ean.

IGANTZI

Ikasturte bukaerako ekitaldiak

Ekainaren 20an eta 21ean.

ARESO

'Konplizeak' antzezlanak

Ekainaren 29an, 18:00etan.

TAILERRAK

ITUREN

Adimen emozionala langai

Abarun aterpean, ekainaren
15ean eta 16an.

ARANTZA

Kontsumo arduratsuari buruzko tailerra

Baskulan, ekainaren 20an,
18:00etan.



ARTXIBOKOA

SUNBILLA Bertso-afaria

Joanes eta Xabat Illarregik girotutako afaria.
Bustitz ostatuan, ekainaren 15ean, 21:00etan.

BERA

Osasun sexualari buruzko tailerra

Berlandetan, ekainaren 24an,
11:30etik 13:30era.

Erraldoiak ibiltzeko ate irekien jardunaldiak

Herriko etxeko plazan,
ekainaren 22an eta 29an,
11:00etan.

KIROLA

LESAKA

I. Mendi Lasterketa

14 kilometro eta 900 metroko
desnibela.
Ekainaren 15ean.

BERA

Herriarteko txirrindulari gazteen topaketa

Ekainaren 15ean.

AMAIUR-ARIZKUN

Krono eskaladak

Otsondoko portuan, ekainaren
23an, 10:00etan.

DONEZTEBE

XLI. Herri krosa

Ekainaren 16an.

Txirrindulari gazteen topaketa

Ekainaren 30ean.

LESAKA

Mendi Lasterketa

Ekainaren 15ean.

SARA

Mendi-ibilaldia

Ekainaren 16an.

KONTZERTUA

LESAKA

Balerdi Balerdi taldea

Ekainaren 21ean.

ELIZONDO

Piano, txistu eta biolin-joleak

Arizkunenean, ekainaren 15ean,
20:00etan.

Aimarren eskutik tekno gaua

Futbolin ostatuan, ekainaren
15ean, 00:00etan.

SARA

Lanetik egina

Lur Berri Gelan, ereiaroaren
14an, 19:00etan.

Erlauntza abesbatzaren emanaldia

Ekainaren 20an.

Mendi xola abesbatza

Elizan, ekainaren 26an,
09:00etan.

DONEZTEBE

Musika eskolako ikasleen kontzertua

Ekainaren 20an.

Benito Lertxundi

Frontoian, ekainaren 22an,
22:00etan.

BERA

Izaki gardenak

Herriko etxeko plazan,
ekainaren 27an, 20:30ean.

ARIZKUN

Arizkun Rock

Ekainaren 21ean, 23:00etan
hasita.

OSPAKIZUNAK

ETXALAR

Haurraren Eguna

Ekainaren 14an.

ZUBIETA

Merienda-afaria

Ekainaren 14an.

Bestaberri

Ekainaren 23an.

DONEZTEBE

Futbol Taldearen eguna

Ekainaren 15ean.

ELIZONDO

Baztan Kirol Elkartearen eguna

Ekainaren 15ean.



OSKAR TXOPERENA

ESKUALDEA **San Juan suak**

Eskualdeko herri guztietan suak eta zenbaitetan herri-afariak.
Ekainaren 23an.

SUNBILLA

Ikasturtea agurtzeko besta

Ekainaren 21ean.

Berto-afaria

Joanes eta Xabat Illarregirekin.
Bustitzen, ekainaren 15ean, 21:00etan.

GOIZUETA

Herri-afaria

Ekainaren 23an.

ITUREN

Trinitate Eguna

Ekainaren 16an.

AINHOA

Xareta Eguna

Ekainaren 16an.

ZUGARRAMURDI

Gaurik laburrena

Ekainaren 22an.

IRISARRI

Euskal Herria Zuzenean

Kontzertuak, hitzaldiak,
haurrentzako jokoak...
Ekainaren 28tik 30era.

BESTAK

SALDIAS

Herriko bestak

Ekainaren 21etik 24ra.

BERA

Altzateko bestak

Ekainaren 14tik 16ra.

ETXALAR

Haurraren Eguna

Ekainaren 14an eta 16an.

DONEZTEBE

Herriko bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.

ARIZKUN

Herriko bestak

Ekainaren 20tik 24ra.

ERRATZU

Herriko bestak

Ekainaren 27tik 30era.

ALMANDOZ

Herriko bestak

Ekainaren 19tik 23ra.

Nire aukera

«Haurrentzako ekintza gehiago falta diren arren, besta ederrak dira»

ANE ETXABE AIZPURUA ERRATZU

«Herria eta ingurua maite duen 21 urteko gaztea» da Ane Etxabe. Astegunez Haur Hezkuntzako gradua egiten ari denez, Donostian bizi da eta astebururo «hurbilekoekin egon eta inguruaz gozatzeko» herrira bueltatzen da: «lasaitasuna eta hurbilekoak ezinbertzeko dira niretako». Astebururo izaten du «zeregina», eta hori «eguraldiaren arabera» aldakorra izaten da: «eguzkia atera bezain fite karrikarat ateratzen gara». Badute, bertalde, «larunbatero» errepikatzen duten planik: mendi-itzuliren bat eta lagunarteko afaria. Hortik aitzinerakoa «momentuak agintzen du!». Ahal duenean, besta egitea ere gustatzen zaio eta bereziki «udakoak,

herrietako bestak» ditu gustuko: «ostatuetako besta baino nahiago dut plazetakoak, kanpokoa». Herrikoak ate joka dituzte eta gogoz hartuko ditu Etxabek: «denek elkar ezagutzen dugun arren, egunerokotasunean bakoitzak bere bizitza eta lana du eta bestak elkartzeko aitzakia ederra izaten dira. Herrikoen artean sortzen den giroa eta



hurbiltasuna ederra da». Beteta ditu egunak: «ortzegunean haurren eguna, Izpegiko bizikleta-igoera eta zopa-jatea izanen ditugu; ortziralean gazte bazkaria, poteoa eta kontzertuak; larunbatean luntxa eta pilota partidak eta igandean zikiro jatea. Ekitaldi gehiago ere badira, eta egitarauan xehetasunak bilduta daude». Egun guztiek «berezitasunen bat» badutela nabarmendu du erratzuar gazteak, eta hortaz, eguna baino momentuko giroa azpimarratuko luke: «herritarrek mahai-inguruan biltzen garenean sortzen den giroa izugarria da». Oharkabean eguna luzatzen denean lo eskasiari eta biharamunari aitzin egiteko «etxetik atera, lagunekin bildu eta oliba batzuk jatearekin» aski izaten du: «bestondoa lagunartean elkarbanatuz gero arinagoa da!». Argi du Erratzuko bestak ez direla «denen gustukoak eta adin tarte guztietara egokituak» eta beraz, gaztea den heinean ez ditu pasatzen utzi nahi. Horren arrazoi nagusia «diruaren mugak» direla erranen luke eta, bere aldetik «haurrendako ekintza gehiago» falta direla uste du. Mugak muga eta inperfekzioak inperfekzio «bereziak eta gustagarriak» dira: «probatu ez duenak ez daki zer den hau!».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda salgai, bere lurra-
rekin. ☎661 12 15 40.

EROSI

Iruñeko bikote batek **baserria edo borda erosi** nahi du. Zaharberritu gabea edo egoera onean dagoena. Berdin zaie edozein herritan. Etxebizitza independentea nahi dute. ☎646 86 34 03.

ERRENTAN EMATEKO

ELIZONDO. 65 m²ko pisua errentan emateko. Elizondoko lanbide eskolaren ondoan. ☎678 54 27 73.

LESACA. Lagun batentzat logela bat errentan emateko, urte osorako. ☎678 85 50 56.

IGANTZIKO BENTAK. Etxea errentan emateko, terrazarekin eta lur eremuarekin. Irailetik ekainera. 450 euro. ☎617 34 75 28.



ETXALAR. Larrapil Sarrikun etxea errentan emateko. 3 logela, 2 komun, garajea eta 2 egongela dituen etxea. Bista zoragarriak. ☎ 687 76 69 71 / 672 15 31 96.

IRUÑEA. Unibertsitateen ondoan, ospitaleen ondoan eta hiriko erdigunetik hurbil pisua errentan emateko. ☎ 626 89 93 49.

ERRENTAN HARTZEKO

LESACA. Logela bateko edo biko etxebizitza errentan hartzeko prest. Hilabeteen gehienez 450 euro ordaintzeko prest. ☎642 46 44 05.

KONPARTITUAK

Ikasle bat pisu konpartitu batean **logela bila** irailetik ekainera. Iruñean, Burlatan, Txantrean, Arrotxapean edo Antsoainen. ☎659 82 66 09.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Bidasoa karrikan, garajea errentan emateko. ☎626 89 93 49.

BERTZELAKOAK

BORTZIRIAK. Gauzak gordetzeko bajera baten bila. ☎650 71 40 30.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ITUREN. 345 m²ko lur eremua salgai, etxea egiteko prest dagoena. Ura, gasa, argia eta saneamendua sartua. Solairu bakarreko etxea egin daiteke. ☎678 85 50 56 / 948 63 78 62.

OIZ. Lur eremua salgai. ☎628 31 60 81.

ERRENTAN EMATEKO

BAZTANGOIZA. Ardi borda bat bere lur eremuarekin errentan hartu nahi dute. ☎663 59 17 76.

LANA

ESKAITZAK

DANTXARINEA. Maspomenos-en lan egiteko jendea behar dute. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterkete-

takoak, kanpoko jardueretarako... Interesatuak bidali curriculumak: *info@maspomenos.net*-era. Frantsesa jakitea kontuan hartuko da.

DANTXARINEA. Mikelenborda osatutako zerbitzaria behar dute maiztzeetik aurrera eguerdiko zerbitzuan. ☎690 38 81 34 / 948 59 90 45 / *info@mikelenborda.com*.

BERA. Bidaia-agentzia langilea behar dute, marka ezaguneko frankizia. Bidali curriculumak: *jo-bera@bthetravelbrand.com*.

IBARDIN ETA DANTXARINEKO bentetan urte guztirako langile bila dabilta, harakin, zerbitzari, arropa saltzaile, kutxazain eta dendan lan egiteko. ☎626 24 73 31.

Kontxa hornitegiak langile bat behar du **hornitegian eta kamioiarekin** banaketan lan egiteko. Kamioia gi-

datzeko baimena eta ADRa izatea eskatuko dute. ☎948 45 07 87.

BERA. Jatetxe batean asteburuetan bi langile behar dituzte, fregaderan lan egiteko eta zerbitzatzeko. ☎948 63 03 92 / 650 00 68 87.

ETXALAR. Landagain eskolako jantokian sukaldeko langileen lan-poltsa osatu nahi dute. Interesatuak idatzi *landagain.guraso.elkarte@gmail.com*-era, ekainaren 30a baino lehen.

IRUN. Ile-apaindegi misto batean asteartetik larunbatera egun osoz lan egiteko lehen mailako ofiziala behar dute. Berehala lanean hasteko. ☎605 70 30 59.

LESACA. Kafetegi batean egun erdiz aritzeko langilea behar dute. Interesatuak idatzi *m.evaogi@gmail.com* helbidera.

URDAZUBI. Irigoienea Hotelean, udako asteburuetan (ortziraletik igandera, goizez) lan egiteko pertsona behar dute. ☎948 59 92 67.

BERA. Errekalde ostatuan sukaldaria eta zerbitzaria behar dituzte. Interesatuak bidali curriculumak: *errekaldeostatu@hotmail.com*.

ZERBITZUAK

PSIKOANALISTAK

ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordura

☎ 948 272 011 (IRUÑA)

☎ 948 580 975

Jaime Urrutia, 42-2.D **ELIZONDO**

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guztietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Hilabete eta erdiko **txakurkumeak** oparitzeko. Jaten hasiak. ☎685 77 58 89.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,20
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 170,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,70/7,30
- 8-10 kilokoak: 5,60/6,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 67 €

Zerri gizona 1,408 €

Zerramak 0,700€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(maiatzaren 24tik 31ra bitarteko prezioak)

SALGAI

Behi blondak, ernariak edo araxearekin, salgai. ☎670 30 35 20.

MOTORRAK

TAILERRAK



SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT Estreinatua gabea

DACIA DUSTER AMBIANCE 1.6 115 CV 4X2 14.100 euro - Sustapen finantzarioei lotuta

Estreinatua gabea

RENAULT CLIO ZEN TCE 90 CV - 12.150 euro Klim., Nab., apark. arrada, kam. - Sus. finan. lotu

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

LEITZA. ROCKRIDER ST100, 27,5" mendi bizikleta beltza lapurtu digu-

BERAKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA - HIRIGINTZA -

Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2019ko martxoaren 21eko:

10. poligonoko 135. partzelaren (Ugalzua Karrika 10) Hiri-jarduketarako Plan Berezia hasiera batez onestea.

Espediente hau jendeaurrean izan den da hilabete batez, dagokion iragarria NAOn argitaratu ematen denetik (maiatzaren 24an argitaratu da, 100. NAOn).

Bera, 2019.05.24

ALKATEA, Josu Iratzoki Agirre

te, maiatzaren 24an, ostiral gauez. Norbaitek zerbait ikusi edo informazio lagungarriaren bat izango balu, mesedez jarri gurekin harremanetan. ☎675 01 91 83.

DENETARIK

OPARITZEKO

ZUGARRAMURDI. Bi hozkailu haundi (arkoiak) oparitzeko. ☎639 64 87 34.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak/> info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

SORTZEAK

- **Leire Lagrenade**, Sarakoa, maiatzaren 10ean.
- **Amaru Oihan Barillas Ariztia**, Doneztebekoa, maiatzaren 16an.
- **Martin Eskudero Mateos**, Doneztebekoa, maiatzaren 15ean.
- **Arene Bereau Arribillaga**, Lesakakoa, maiatzaren 16an.
- **Mattin Iribarren Ubiria**, Lesakakoa, maiatzaren 18an.
- **Oinatz Espelosin Mendikoa**, Sunbillakoa, maiatzaren 21ean.
- **Aner Apeztegia Sanzberro**, Sunbillakoa, maiatzaren 28an.

EZKONTZAK

- **Maitane Arruabarrena Otxandorena** eta **Xabier Andueza Petirena** Berakoa eta Lesakakoa, ekainaren 1ean Etxalarren.

URTEBETETZEAK



Araia Bereau gure etxeko printzesak 2 urte beteko dituela egunaren 21ean. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu haundi-haundi bat.



Araia Bereau gure etxeko printzesak 2 urte beteko dituela egunaren 21ean. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu haundi-haundi bat.



Xabat Beorlegi Vicentek 3 urte beteko dituela egunaren 21ean. Aunitz urtez familia guziaren partetik eta muxu haundi bat gure pitxurrinori!



Zubietako Ekaitz Loiarre Otxandorenak urteak bete dituela egunaren 6an. Aunitz urtez familiakoien partetik. Hamaika musu!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak, TTIPI-TTAPAREN bitartez! Bi bide dituzu:

Internetez: <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta Ttipi-Ttapa aldizkarian. Edo **bulegoan:** etor zaitez Ttipi-Ttapaaren bulegora: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Prezioa: Argazki soila: 5 €; bikoitza 10 €

Logotipoak Txartelak Oroigarriak Argitalpenak Egutegiak Boletok

948 635 458 kulturkari.com

HERIOTZAK

- **Marie Therese Toyos**,
Sarakoa, maiatzaren 3an, 68 urte zituela.
- **Laurentine Iribarren**,
Sarakoa, maiatzaren 14an, 83 urte zituela.
- **Concepcion Bengoetxea**,
Sarakoa, maiatzaren 19an, 93 urte zituela.
- **Manuel Iturriria Goñi**,
Lekarozkoa, maiatzaren 22an, 87 urte zituela.
- **Tiburtzio Karrikiri Inda**,
Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 23an, 72 urte zituela.
- **Maria Sestorain Larrea**,
Leitzakoa, maiatzaren 23an, 89 urte zituela.
- **Rosario Pikabea Goia**,
Alkaiaakoa, maiatzaren 25ean, 80 urte zituela.
- **Mª Josefa Azkarate Eugi**,
Elizondokoa, maiatzaren 25ean, 88 urte zituela.
- **Asier Jorajuria Bazterrika**,
Donamariakoa, maiatzaren 29an, 37 urte zituela.
- **Katalina Larunbe Urrizola**,
Lekarozkoa, maiatzaren 30ean, 100 urte zituela.
- **Txelo Aldaraborda Iparragirre**,
Lesakakoa, ekainaren 4an, 88 urte zituela.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOKAN
AQUÍ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA **948 63 74 04**

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA

ETXEETAN ZERBITZUAK

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

www.tanatoriosirache.es

URTEURRENA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
III. urteurrena

Gure gau ilunak
argituko dituen izarra,
buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzunaren islada.
Gure bihotzean beti
altxatuko dugun
Aitor maitea izanen zara.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Asier JORAJURIA BAZTERRIKA

Donamarian, 2019ko maiatzaren 29an, 37 urterekin

Destinuaren aurrean egin ezin egina
oraindikan bizitzeko nahiz falta zitzaizun grina
aitatxorik hoberena anaia ta seme fina
amets gaizto bat al da hau

amaiera hain gordina aurrera segi behar dugu
nolabait ere aitzina zutaz oroituko gara
lehengusu eta lehengusina
Asier hartu ezazu gure besarkada haundina.



ZURE AMATXI, OSABA-IZEBA ETA LEHENGUSU-LEHENGUSINAK

URTEURRENA

Jose Jabier ZUBILLAGA CAMINO

Zugarramurdi, 2018ko ekainaren 29an
I. urteurrena

Dena eman zenigulako
adiorik ez,
geroarte baizik.



FAMILIA ETA LAGUNAK

URTEURRENA

Jesus Mari ARGAIN LARREGI

Narbarten, 2016ko ekainaren 6an
III. urteurrena

Gure gau ilunak argituko dituen izarra
buruari bueltaka dabilen,
irriaren oihartzunaren islada.
Zu gure bihotzean beti
altxatuko dugun Jesus Mari,
aita eta ataxi maitea izanen zara.



ZURE FAMILIA

KONTATU KONTUAK



Parapentean Zugarramurdin. Ba al zenekien Irungo Vuelo Bidasoa elkarteak parapente ikastaroko praktikak Zugarramurdiko Atxuria mendian egiten dituela?



Atekabeltz koloretsua. Leitzako herriguneko ezker paretan mural dotorea egin dute.



Kenpo kai. Maiatzaren 25ean Donezteben Nafarroako Kenpo-kai txapelketa jokatu zen.



Hasi dira kronoeskaladak. Presoen eskubideen aldeko Nafar Erresumako kronoeskalada txapelketaren barne jokatu diren sei proben artean, lehenbizikoa egin zuten maiatzaren 26an Saran. Eguraldi iluna izanagatik, 38 lagun igo ziren Lizarietara; gizonezkoetan, Didier Zago BTT eta trail txapeldunak egin zuen denborarik onena eta Eneko Aritza Nafarroako lehenbiziko erregea izendatu zuten eta emakumezkoetan Adèle Kerbaol Toda Aznarez Nafarroako lehenbiziko erregina.



'Akelarre' filmaren grabaketak Saran. Pablo Agüero zinegile argentinarraren *Akelarre* filmaren grabaketekin aitzinera segitzen dute. Euskal Herriko hainbat txokotan ari dira grabaketak egiten, baita gure eskualdean ere. Joan den astean, erraterako, Saran aritu ziren eta Lesakara joatekoak dira ondotik. 1609an sorginkeria zela eta ez zela izandako epaiketak oinarri dituen lana da *Akelarre*. Euskaraz eta gaztelaniaz grabatzen ari dira eta 2020an ikusgai izanen da zinema-aretoetan.



Nafarroako Etxeen Eguna Lesakan. Nafarroatik kanpo bizi diren nafarrak biltzen dituen Nafarroako Etxeen Jardunaldia Lesakan egin dute aurten, ekainaren 1ean. 500 bat lagun bildu ziren.



Ikasleak kanpaldietan. Ikasturte bukaera hurbiltzearekin batera, ikastetxeetako ikasleak kanpaldietan dabilza. Argazkian etxalartarrak ageri dira, Zuhatzara (Araba) egindako ateraldian.

A cartoon illustration of a girl and a boy. The girl, on the left, has red hair in a ponytail with a blue bow, large eyes, and a red shirt. The boy, on the right, has red hair, large eyes, and a green shirt. They are both smiling and looking towards the right.


Sekuentzia



1 2 3 4

Aurkitu labirintotik ateratzeko bidea, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu, irudiko neskato lotiari arras ongi ematen diona, bide batez esanda. Puntu grisak hitzen arteko tartea irudikatzen du.

JRR...
zzzzZZZZ
GRRRR...
ZZZZZZZZ
GRROR



Idatzi hemen esaldia



...BAINA HORI
NESKENTZAT DA,
EZTA?



Neska-mutilok ikasgelatik atera eta liburutegira doaz sokari helduta...




...eta hemen, berriz, liburutegitik ikasgelara bueltan datoz. Aurki itzazu bi irudien arteko aldeak. 12 dira guztira.



XOMORROAK DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttapi Txartela

arekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

735

aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera

Jose Miguel Betelu Ziganda | IRUÑEA

Astizko lezeak - 2 sarrera

Lourdes Sanz Ganboa | BERA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Lourdes Iriarte Agirre | DONEZTEBE

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Milagros Olano Arraras | LEITZA

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Maite Urrutia Bergara | AZPILKUETA

La Rhune - 2 sarrera

Joana Mariezkurrena Mariezkurrena | EZKURRA

Wow Park - 2 sarrera

Mª Sol Otxoteko Portu | LESAKA

Elkar - Liburu bat

Pedro Fagoaga Etxeberria | URDAZUBI

Elkar - Liburu bat

Estibaliz Iparragirre Madariaga | ARANTZA

2 sarrera

BAZTAN AVENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
SARRERA

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

AQUARIUM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
GONBIDAPENA / INVITACIÓN

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

Jaiaberrientzako kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

LA RHUNE
2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA

Wow Park
Votre Parc Adventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LIBURUAK ak

Maite dut gaua
Orgi eta Zuhaitz

Maite dut gaua
Orgi eta Zuhaitz

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

LA GUNTZAI LEAK

Urtxintxa
KALITATEZKO HERRIARRAK

www.urtxintxa.eus

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

www.buatxabal.eu